

# ADGIA

30 urte Ertzaintzaren komisarian hil zutela

## Juan Calvo: torturaren frogak

IKERKETA ERREPORTAJEA

"Gorpu hura masakratuta zegoen"

23-35. orriak



**Herri zaugarriak  
zorpeturik, klima  
larrialdian ere**

12 | NAZIOARTEA



**"Metrailetekin  
etorri eta etxea  
kendu zidaten"**

14 | MIREN EGIGUREN



**"Herri honetan joera  
handia dago jende  
bat mitifikatzeko"**

42 | IBIL BEDI



# OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake  
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza  
ipuin-kontalari trebeenen  
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,  
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta  
batez ere, disfrutatzen eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: CALVO FAMILIAK UTZIA

## Iritziak

- 19 | ENDIKA ALABORT
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | HIRUKI LARROXA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | BEÑAT MUGURUZA

## Finkoak

- 37 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:  
ALBINA STARDUST
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



### 42 | IBIL BEDI MUSIKA TALDEA

Gorka Peñagarikano *Ibil Bedi* musika taldeko Amets Aranguren eta Ibai Osinaga kideak elkarrizketatu ditu. Mintzatu dira azken diskoaz, publikoan gehiagi ez agertzeaz, tradizioaz eta berrikuntzaz, musika zirkuitu ezberdinez, jokabideetan egindako hautuez...

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Herri zaurgarrienek zorpeturik segituko dute finantza sistema berrian ere

Jenofa Berhokoirgoin

14 | PERTSONAIA | MIREN EGIGUREN

### “Agortzen ez den iturburu bat daukat barrenean”

Danele Sarriugarte

23 | POLITIKA | HERIOTZAREN 30 URTE

### Nola eta zergatik hil zuten Juan Calvo Ertzaintzaren komisarian?

Zigor Olabarria

36 | “OTU” JOLAS BERRIA

### Barruan daramagun ipuin-kontalaria

Mikel Garcia

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Erredakzioa

Aitor Gurrutxaga, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Ilargi Manzanares, Jenofa Berhokoirgoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Ointza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA






# Ez-normaltasunaren normaltasuna

Bi hamarkada eta erdi behar izan ditu Irungo alkateak, udaletxeko balkoira atera eta alarde tradizionalari egiten dion harrera egiteko alarde parekideari ere. Teorian herritar guztientzat gobernatzen duen alkateak normaltasunaren izenean eman du aurrerapausoa, eta keinua urte luzez errepikatzea aurreikusi du gainera; bai arriskutsua, bi alarde izatea anomalia baita, eta hori normalizatzea eta betiketzea ez da arazoa konpontzea, enkistatzea baizik. Normaltasunez mozorroturiko gatazka konpontzeko ez da neurririk, bitartekaritzarik, ahaleginik eta borondaterik egon udalaren aldetik 25 urtetan; alarde bakarra eta parekidea iritsiko da noizbait, baina ez da izango instituzioei esker.

 GARI GARIALDE / BOSTOK PHOTO

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ







# Tourraren irabazleak eta galtzaileak

URKO APAOLAZA AVILA / LANDER ARBELAITZ MITXELENA

**F**rantziako Tourra Euskal Herrian hasi den honetan, Bilbon hotelen prezioak izugarri garestitu dira egun horietarako eta luxuzko jatetxeak bete egin dira. Bizkitartean, ostalaritzako langileak greban izan dira, inflazioaren eta behin behinekotasunaren ondorioz galdutakoa berreskuratu nahian.

Karrera ikusgarria egin dute hotelak erreserbatzeko atariak azken asteetan Bilbon. *Booking*-en zein *e-dreams*-en, berdin du, zaila izan da 200, 300 edo 500 eurotik beherako ezer aurkitzea. Tourra aspaldi iritsi zen Puppy eta Guggenheimaren hirira, eta batez ere luxuzko hotel frankizia multinazionalak nabaritu dute etekina. Carlton, NH, Ercilla edo Catalonia bezalako hoteletako logelaren gau bakarrek prezioak pentsionista normal batek hilabetean jaso dezakeena gainditu dute askotan. Zure soldata osoa –eta zure pisukide guztiena gehitu, nahi baduzu– beharko zenuke gela horietako bat ordaintzeko. Gran Vía ko Catalanian, adibidez, 3.381 euro kosta du Guggenheimaren parean lo egiteak. Maillot horia beretzat.

Hotelak ez ezik, jatetxeak ere aritu dira katanarrua betetzeko erlojupekoa jokatzeko. *“Estamos que nos salimos”*

**“Grand Depart Pays Basque operazioak zerikusi gutxi du txirindularitzaren baloreekin”**

aitortu diote *El Correo* egunkariari luxuzko chef bilbotarrek. Alegia, Michelin izardun jatetxeek itxaron-zerrenda luzeak izan dituztela.

Erakunde publikoek indar guztiak jarri dituzte kirol makro-ekitaldi bilakatu den Tourrari zuku guztia ateratzeko, eta hedabideetan ez da besterik. *Hor Dago-El Salto*-n Ahoztar Zelaietak azaldu duenez, Amaury Sport Organisation Frantziako bizikleta biraren antolatzaileari 12 milioi euro esleitu dizkiote Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Aldundiak eta Bilboko Udalak logistika lanetarako, eta “ezkutuan” geratu diren beste kontratu batzuk ere sinatu dituzte. Denera 14 milioi euro baino gehiago lirateke.

Amaury Sport Organisationek ez du Tourra bakarrik antolatzen, Dakarreko rallya eta beste kirol ekitaldi batzuk ere bai, eta *l'Équipe* bezalako hedabide han-

diak bere esku daude, Zelaietak dioenez.

Denak ez dira irabazi, eta denak ez dira irabazle Tourrean. Bizkaiko ostalaritzako langileak greban izan ziren Tour bezperan, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Taberna, jatetxe eta hoteletako 22.000 langileri eragin die deialdiak eta 2020tik iraungita duten hitzarmen kolektiboa berritzea eta inflazioaren ondorioz galdutako erosahalmena berreskuratzea dute helburu, besteak beste.

## “GURE NORTASUNA SALGAI”

Donostiako Bizilagunekin Plataforma ere kritiko azaldu da ekitaldiarekin eta lasterketak herritarren eguneroko bizitzan izango duen inpaktua nabarmendu du: kaleak eta errepideak itxita, eragozpenak zerbitzuetan, eta garraioa eta mugikortasuna murriztuta, besteren artean. “Hori gutxi balitz, inbertsio publikoa eta kalteak herritarrek jartzen dituzten bitartean, ekitaldiaren etekin ekonomikoak industria turistikoak jasoko ditu. Sektore turistikoa kontrolatzen duten lau poltsikotan bukatuko dute irabaziek”.

Euskal Herriak txirindularitzarekin duen lotura nabarmena ikusten dute, zale asko dituen eta pasio handiz bizitzen den kirola dela uste dute. Hori jakinda, Frantziako Tourraren *Grand Depart*-aren negozio turistikoa sustatzeko Euskal Herriko txirindularitzarekiko eta bere balioekiko atxikimendua erabili dela ikusten dute. “Egun hauetan gure lurraldea, kultura eta nortasuna salgai daude, turismoaren industriaren irabazi ekonomikoak handitzeko”.

Tokiko kulturaren eta ondarearen “merkantilizazio” horretan, euskararen gaia esanguratsua dela uste dute. Promozio turistikorako mesedegarria denean, marketin estrategien bidez folklorizazio eta fetitxizazio ariketak egiten direla diote. “Azken finean, *Grand Depart Pays Basque* operazioak zerikusi gutxi du txirindularitzaren baloreekin, euskal nortasunarekin, oinarrizko txirindularitzako eragileei laguntzarekin, herriz herriko lasterketen antolakuntzarekin...”. ●





# Noren mende



UXUE APAOLAZA LARREA

**U**dako despiste informatiboan, berri batek erakarri du nire arreta, hauteskunde kanpainetikiko adikzioaren ondorioz, Argentinako gorabeherei adi nabilenez. Argentinak yuaretan ordaindu omen dio NDFri, orain ordaintzea zegokion zorraren zati bat. "Zegokion" horrek barnean daraman subjektibotasun guztia kontuan hartuta. Batzuek AEBen alde egin zuten Argentinaren alde baino, beren garaian (beren garai guztietan egiten duten eran, izan Menemek, izan Macrik: alderdi desberdinekoak izanagatik, berekoak diruditenak), eta orain kontuak, BRIC ametsa gero eta urrunago. Dolarrak falta. Yuanak aukeratu. Kontua da dolarra AEBetako txanpona dela, yuana Txinarena, eta, azken aldian, bi herrialde horien izenak elkarren segidan irakurtzeak suspentse musika ekartzen du gure belarrietara.

Nork ematen digu beldur handien? Hori ere landuta dago ziur asko, jakin gabe nonbait baikaude, eta nahi gabe, ez dugu beste nonbait egon nahi. Noren mendeko garen ebatzi nahian pasatzen dugu bizitza. Merkatua librea omen den mundu honetan, dardara egiten dugu AEB ez den potentziaren bat neurritz kanpo indartzen bada; alegia, ekonomikoki itzal luzeegiz dabilenari akats demokratikoak ikusten amaitzen dugu. Huawei, Tik Tok, Trumpen zergak... dena da onargarria, aberastea demokratikoa baita, konpetentzia nori egiten zaion... orduan ez, noski; eta gainera ez dugu zerraldorik ikusten. Zerraldoak Txinari egozteko tentaldiak izan ziren, asko, pandemia garaian (Argentinan Sputnik txertoaren alde egin zuten). Eta zerraldoak, ikusi, gerra deklaratueta ikusi ditugu, Ukrainan, kasu. Txinak atzera egin dueneta lasaitu gara gerretan, eta aspaldi da beldurtzen garel. Gogoan dut Belgraden, Jugoslaviako gerran, Txinaren enbaxada bonbardatu zuten eguna.

Ukrainan Hitler aipatu da, Naziak, Bigarren Mundu Gerraren osagai pseudoideologiko sinplifikatuak ekarri nahian; baina, agian, Lehen Mundu Gerra aipatu behar genuke gehiago. Merkatu librean, konpetentzia ez delako azkartasunean oinarritzen, armek ezartzen dute zer erosi nahi dugun ere. Ukrainan Txina, Argentinan yuana... Eta zer desiratu behar genuke? Noren mende egon nahi dugu? ●



ADUR

## Matxismoa

47 urteko emakume bat labankadaz hil zuen 51 urteko gizonak, Iruñean. Uztailaren 1ean gertatu zen, Iruñeko Anayak tabernan; bertako bazkide eta bikote ziren gizona eta emakumea. Hilketak matxista salatzen elkarretaratze jendetsuak egin dituzte.

## EHZ

12.000 ikus-entzule eta 500 laguntzaile bildu ditu aurten EHZ festibalak Irisarriko plazan eta belardian. Irisarri agurtu eta datozen hila batean erabakiko dute zein izango den EHZren hurrengo eszenatokia. "Herria eraikitzen segituko dugu".

## Mugak

2021eko urtarrilean itxi zuen Frantziako Gobernuak Irun eta Hendaia herrien arteko oinezko pasabidea. Erakundeek, elkarteek eta gizarte mugimenduek maiz egin dute irekitzeko eskaera, eta oraingo honetan baiezkota eman du Frantziako Gobernuak.



## EKONOMIA

# Mikrorik gabeko makro ekonomia



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**K**ontsumorako Prezioen Indizea (KPI) berriro jaitsi da, Espainia-ko Estatuaren kasuan bere lekura itzuli arte gainera, egungo doktrina ekonomikoak ezartzen duen %2tik behera dagoelako jada. Azpiko inflazioaren bilakaera motelagoa da, baina tira, pozik agertu dira arduradun politikoak eta hazkunde ekonomikoa uste baino zertxobait handiagoa izango dela iragarri dute. Produzitzea duela urtebete baino merkeago izango da, energiaren prezioa jaitsi den neurrian.

Datu berdinak arnasa hartzeko aukera eman beharko lioke urtea itolarrian egin duen langileari. KPIaren igoerak ekarritako garestitzea apalduko delakoan, soldata berarekin orain urte bete baino eros ahalmen handiago izan behar luke. Ez da horrela izango ordea. Soldataren zati handiagoa doa hipoteka ordaintzera, alokairuak ez dira jaitsi, argi indarraren eta gas fakturaren zenbatekoan KPIaren gorabeherak ez dira berez eta zuzenean aplikatzen...

*Oikos* eta *nomos*, etxea eta administratzailea. *Ekonomia*, etxea ongi administratzeko trebetasuna. Teoria ekonomiko hegemonikoek aspaldi apurtu zuten ekonomiak jatorriz zuen esanahia. Baina harago eginez, makroaren eta mikroaren arteko aldean dago gaur egun apurketa. Adierazle makroekonomikoen ez dute etxeetan, herrietan, eskala txikiko jarduera ekonomikoan gertatzen dena ez islatzen, ezta aintzat hartzen ere. Hortaz, azterketa makroen gaineko politikak ez dira etxeei, herriei eta eskala txikiko jarduera ekonomikoari begira egiten, ezta egingo ere. Adierazle berriak, egoera ekonomikoak beste ertz, oinarri eta helburuekin aztertzeke tresnak... beste behin ere, gal-tza bete lan oporretara. ●

## ANALISIA



CULTIVOS ARABÁ

## Erlojuaren kontra

URKO APAOLAZA AVILA

**G**aubean tomate hidroponikoak ekoizteko makro-negutegia martxan da azkenean. 2022an irekita behar zuen 15 hektareako azalera duen kristalezko eta altzairuzko planta erraldoiak, baina proiektua gerarazi zuen Cultivos Arabak –atzean Almeriako Hispalus elikadura konpainiaren kapitala duena–, energia kostuek eraginda. Diru publikoa jaso zuenean –4,7 milioi euro– hitzemandako promesak ez betetzea egotzi diote orain enpresari: ez dituela agindutako 150 lanpostuak sortu eskualdean, eta lan baldintzak kaskarrak direla, besteak beste.

Duela gutxi, makro-negutegian lan egin duten hainbat lagunekin izan da *Arabako Alea* eta “Almeria estiloko” eredia erabiltzen duela salatu dute: “Dena berdin zaie, eta oihukatzea da egiten dakiten gauza bakarra. Jendea hitz egiten entzuten dutenean isiltzeko oihukatzen digute; ezin da erlojua sartu lanera, denbora ez kontrolatzeko”.

Denbora beti izan da lan harremanen faktore garrantzitsuenetako bat. Kataluniako *Sapiens* aldizkariaren azken zenbakian Genís Casanovas kazetariak gogoratzen duen gisan, XVIII. mendean Britainia Handian industria iraultzarekin, denbora ikuspegi produktibista hutsetik hasi ziren kudeatzen. Frederic Taylorrek zioen enpresa baten bitarteko baliotsuena ez zirela makinak edo kontu korranteak, bere soldatapekoen denbora baizik. Pennsylvaniako fabrika batean langileak palakada bakoitzean gastatu behar zuen denbora kalkulatu zuen, gehiegi ez nekatzeko baina gutxiegi ez produzitzeko. Eta horrela sortu zen *taylorismoa*, Henry Fordek bere automobilak egiteko bikainki zorrotzu zuen metodoa.

Geroztik hamaika borroka izan dira, langileak bere orenak hutsaren truk ez saltzeko edo zortzi orduko laneguna ezartzeko. Gaur egungo eztabaida asko ere denboraren inguruan zentratzen dira. Turbokapitalismoak lanetik kanpoko eguneroko bizitzan duen eragina, telelana, kontziliazioa, lau laneguneko astea ezartzeko esperientziak... Baina ikuspegi produktibista horretatik irteten ez bagara, jarraituko dugu denbora merkantzia baten antzera erabiltzen eta salerosten. Hobe eguratsari, sasoiari eta senari begiratzea, tomateak erlojuaren kontra hazi beharrean. ●



123

plagizida detektatu dituzte, horietatik 46 baimenik gabekoak eta 66 disruptore endokrinoak, Espainiako Estatuko elikagaietan. Urtero bezala, Ecologistas en Acción taldeak pestizidekin egindako elikagaien kutsadura-analisiak aztertu ditu.

%60

handitu da hamarkada batean premia bereziekin diagnostikatutako ikasleen kopurua EAEn. 2012an 14.200 ikasle izatetik 2021ean 23.800 ikasle izatera igaro dira.

281

milioi eurotan lizitatu dute Tafalla-Campanas AHT zatia (Castejon eta Iruñerria artean). 15,1 kilometro dira eta 30 hilabetetan egin behar da.

*“Espainiako Polizia Ion Aranbururen egoerari garrantzia kentzen saiatu dela sentitu dugu”*

**IRATI ARANBURU**

Maiatzaren 27an Sorian faxisten eraso jasan zuen futbolzale donostiarraren lehengusina da Irati.

**ARGIA.EUS (2023-06-27)**

**“PANTAILEKIKO GEHIEGIZKO ESPOSIZIOA NORMALIZATZEN ARI DA ESKOLA”**

**COLINE KOLEKTIBOA**

Ingurune digitalean moldatzen irakatsi ordez, zuzenean eskolak pantailaz eta teknologia digitalez betetzen ari direla salatu dute.

**LE COMPTOIR (2023-06-22)**

*“LGBTI borroka edukiz hustu dute eta dena lortuta dagoen diskurtsoa zabaldu da”*

**IRUNGO HARROTASUN KRITIKOA****ARGIA.EUS (2023-06-28)**



## Izena duena da



DIANA FRANCO

Zis edo zisgnero hitzak erabiltzen dira jaiotako sexuarekin edota hezitako generoarekin eroso sentitzen diren pertsonak izendatzeko. Jaiotako sexuarekin edota ezarritako generoan eroso sentitzen ez direnak trans pertsonak izango liriateke. Errealitate hau beti existitu da, baina garai bakoitzeko gizarteek eta euren botere harremanak josteko moduek eragin dute horrelakoak ikusgarri edo ikusezin bilakatzea. Izena duena badela esan ohi da euskaldunon artean, horrela, trans eta zis hitzekin errealitate hori badela ulertzeko modua dugu. Beharbada askorentzat hau berria da, moda bat, asmakizun bat, baina askorentzat euren bizitzaren zentzua da.

Badirudi ordea, errealitate hori zenbaitentzat ezerosoa dela, bestea definitzea ondo dagoela (trans dena), baina norbera definitua izatea (zis dena) ez dela hain egoki ikusten. Horregatik, beharbada, pasa den astean Elon Musk Twitterreko jabeak iragarri zuen zisgnero eta zis hitzak iraingarriak direla, eta jazarpen jokabide bezala hartuko direla modu errepikakorrean erabilia, erabiltzen dutenei kontua denboraldi baterako itxi diezaieketela.

Gizakion joera da sailkatzea, bestea zer den definitzea, babestuta sentitzeko estrategiak dira, oso barneratuak ditugunak. Beharbada bestea izendatzea beharrezko pausoa da norbere burua ezagutzeko eta zaintzeko, batez ere zapalduak izan direnen artean. Musk-ek egin duen mugimenduarekin dugun haurtzaro digitala agerian geratu da, hitz bat debekatzek ez baitu ezkututuko aurrera egin nahi duen errealitate bat.

2022ko abenduan, Gorroto Digitala Indargabetzeko Zentroak (counterhate.com) eta beste eragile batzuek garaturiko analisisetan (*The Musk Bump: Quantifying the rise in hate speech under Elon Musk*) ondorioztatu dute Twitterren gorroto-diskurtsoen kopurua izugarri hazi dela Musken zuzendaritzapean. ●

## Agur Tsipras, kaixo eskuin muturra

AXIER LOPEZ

Demokrazia Berria eskuindarrak gehiengo osoa lortu du, botoen %40,5 eskuratuta. Atzetik Syriza ageri da %17,8rekin. Kyriakos Mitsotakis liberala izango da berriro Greziako lehen ministro. Hala ere, bere alderdiak ia 300.000 boto galdu ditu maiatzeko azken hauteskundeekin alderatuta, eta 140.000 2019ko hauteskundeetatik hona. Syrizarak 2019ko boto-emateen ia erdia galdu du: 1,7 milioitik 930.000ra. Enegarren aldiz historian, eskuina atzera ere irabazle, ezkerreko hautesle askoren desmobilizazio eta desilusioak eraginda.

Hirugarren postuan Pasok dago, "PSOE grekoa", %11,82rekin, eta ondoren KKE alderdi komunista (%7,69). Bosgarren, seigarren eta zazpigarren postuak eskuin muturreko hiru alderdirenak dira. Mezu eta politika arrazistek, migrazioaren kontrakoek, ultranazionalistek, antikomunistek, fundamentalista kristauek... presentzia nabarmena izango dute berriz ere Parlamentuan. 2019tik, espektro politiko horrek ia bikoiztu egin ditu botoak: 665.000 greziarrek aukeratu dute eskuin muturra, botoen ia %13.

Espartarrak alderdi neonazia dago buru (%4,63). Kanpaina egin dute Ilias Kasidiaris Egunsenti Urrekarako bozeramaile ohiaren irudiarekin. Egun Kasidiaris kartzelan dago, 2020ko urrian epaitegiek bere alderdia erakunde kriminal izendatu ostean. Horien atzetik, Irtenbide Greziarreko ultranazionalistak daude (%4,44), European VOXekin taldea partekatzen dutenak. Eta azkenik, Nikiren fundamentalistak sartu dira, botoen %3,69 eskuratuta.

Ez dira gutxi, besteak beste Alexis Tsipras bera, Mitsotakisi egozten diotenak Parlamentuan eskuin muturra sartzea erraztu izana, gobernuak neonazien agenda politikoa bere gain hartzeagatik, Antonis Samarasek 2012an Egunsenti Urrekararekin egin zuen bezala. Edonola ere, emaitzek argi utzi dute, alderdiak legez kanpo utzi arren, sakoneko arazoa ez dela konpontzen sustraiei heldu ezean.



### ZIKLO ALDAKETA, TSIPRASEN GORPUZTUTA

"Syrizarentzat ziklo bat itxi da", zioen Alexis Tsiprasek hauteskunde gauean. Ordu batzuk geroago iragarri zuen alderdiko buru izateari utziko ziola. Syriza, gaur egun indar zentrista dena, Europako ezkertiarren itxaropen bakanetako bat izan zen. 2015ean krisi ekonomikoak gogor jotzen zuen. Zerga igoerek eta osasun eta pentsio murrizketek zigortzen zituzten herritarrak. Kalea sutan zen. Egoera horretan, Tsiprasek urtarrikoleko hauteskundeak irabazi zituzten, bipartidismoaren Demokrazia Berria eta Pasok hondoratuta. Botoen %36 lortu zuen eta, handik gutxira, uztaileko erreferendum historikoan %60tik gora. Orduan greziarrek erabat arbuiatu zuten EBK, NDFk eta Europako Banku Zentralak proposatutako erreskatea.

Tsiprasek borroka hori galdu egin zuen. Troikarekiko konpromisoak berritu zituen eta Grezia zigor eredu-garri bihurtu zuten, beste inork haren bidea jarrai ez zezan. Hala, Europako erakundeek ezarritako murrizketa eta austeritate neurriak aplikatzen dituen gobernuaren aurpegia izatera pasa zen Tsipras. Kontraesan hori kolpe latza izan zen, eta ilusioak eta botoak suntsitzeko makina bihurtu da. 2019an Mitsotakisen eskuinak irabazi zuen eta orain berriro egingo du, baina eskuin muturra indartuta. ●

## Frantziako Poliziak Nahel hil du eta haserreak hartu du kalea

 MEDIAPART/GUAY

**FRANTZIAKO ESTATUA** / Nahel 17 urteko gaztea tiroz hil du Poliziak Nanterren (Paris kanpoaldean) ekainaren 27an. Gertaera bidez grabatu du herritar batek eta berehala zabaldu da. Kontrol batetik autoan ihes egiten saiatu eta tirokatuta hil dute. Haserrea eta ezinegona piztu ditu hilketak eta orduz geroztik protestek eta istiluek ez dute etenik izan Frantziako hiri eta auzoetan. Gobernuak 45.000 polizia mobilizatu ditu, eta astekari hau ixteko unean (uztailaren 3a), gutxienez 3.000 dira atxilotuak.



## Auzitegiak

Hiru gazteri 18 urteko kartzela-zigorra eskatu diete, 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorreko gertakariengatik. Gazteen hitzetan, haien aurkako zigor neurrigabeak justifikatzeko ez daukate frogarik. Auzia uztailaren 3an izan da eta elkarretaratzea egin dute egun horretan bertan.

## Biolur

Biolur elkarteak 30. urteurrena ospatuko du uztailaren 9an, Zestoan. Nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak kideek batzarra, ekitaldia, bazkaria eta kontzertua egingo dituzte, eta esku artean duten Amillubi baserri eta eremuko proiektua bisitatuko dute bertaratuek.





# HERRI ZAURGARRIENEK ZORPETURIK SEGITUKO DUTE FINANTZA SISTEMA BERRIAN ERE

Berrogeita hamar bat gobernutako ordezkari, nazioarteko finantza-egitura esanguratsuenak, hainbat enpresa pribatu eta Gobernu Kanpoko Erakunde zenbait batu dira Parisen, ekainaren 22an eta 23an, mundu mailako finantza itun berri bat adosteko asmoz. Orain arteko joko-arauak zaharkituak eta bidegabeak direla onarturik, baita klima larrialdiaren testuinguruari egokitu beharrez ere kontziente, “sakonki erreformatzea” zuten helburu. Ez da horrelakorik gertatu: orohar, erabakiguneetan herri pobreenek segitu behar lukete pisu gutirekin eta beraien kaltera harturiko erabakiak pairatzen.

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**K**lima aldaketak mehatxaturiko Karibeko Barbados uharterko Lehen ministro Mia Mottley dugu Parisen buruturiko topaketaren sustatzaileen artean. Munduaren Hegoko hainbat herri pobreen gisara alarma pizten dabilena dugu Mottley: klima larrialdia bete-betean pairatzen hasiak dira eta ez dute horri aurre egiteko baliabide finantzariorik. Alta, badakigu ez direla beroketa efektuaren oinarrian: V20 edo Vulnerable Twenty (“Hogei zaurgarriak”) taldea osatzen duten 58 estatu zaurgarrienak –tartean, Barbados uhartera– gas isurketen %5aren oinarrian dira. NBERen arabera, 2030 arte, urtero 140.000 eta 300.000 milioi dolar artean beharko dituzte klima aldaketari egokitzeko eta 2030etik aitzina urtero 280.000 milioi eta 500.000 milioi dolar artean. Adibidez, Pakistango iazko uholdeek 30 milioi herritar kaltetu zituzten eta ofizialki 30.000 milioi dolarreko gastuak eragin zituzten.

Hori horrela, 1944az geroztik munduko moneta eta finantza sistema arautzen duen Bretton Woodseko ituna zaharberritzeko asmoz elkartu ziren berrogeita hamar bat gobernu ordezkari, finantza arloko eragile nagusiak –Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtza, garapenerako banku unilateralak,...–, enpresa pribatu zenbait, kliman adituak diren zientifiko batzuk eta hainbat Gobernu Kanpoko Erakunde. Antolatzaile zen

Frantziako presidente Emmanuel Macronek finantza-sistema “errotik erreformatzeko” asmoa plazaratu zuen hastapeneko hitzartzean. “Greenwashing-aren eta iruzur klimatikoaren gailurra” izan zen Attac elkartearen arabera, eta beste behin ondorio bera atera dezakegu nazioarteko hitzordu horretatik: egoera klimatiko, ekonomiko, sozial eta finantzarioak eskatzen duen konpromiso eta aldaketa heina ez da hartu.

Mundu mailako finantza sistemaren “erabateko aldaketa” espero bazuen ere Mottleyek, maleruski, horrelakorik ez da gertatu. *Bridgetown-eko inizatiba* deituriko proposamen-multzoa esku artean bertaratu zen, baina gehienei ez zaie segidarik eman. Ondoko proposamenak biltzen ditu dokumentu horrek: klimaren desafioari begira herri aberatsek diruz laguntzea pobreenak; zorrari dagokionez, egoera berriari egokitzea, demagun interes tasak ttipituta edo tarte batez deuseztatuta –ez da zorraren ezeztatzerik aipatzen–; enpresa pribatuen esku-hartze finantzarioa emendatzea; maileguak jasotzeko aukerak zabaltzea; finantza-instituzioetako ordezkariaren aldaketak bideratzea, Hegoko eta Iparrereko herrien ordezkariak orekatuagoa bihurtzeko; eta zerga berriak adostea, tartean, fosil erreagaien gainekoa.

Luiz Inacio da Silva Lula Brasilgo presidentek ere gogor hitz egin zuen gaur egungo joko-arauen aurka: “Ezin dugu klimaz hitz egin, desberdintasun sozialei begiratu gabe. (...) Instituzioak

ez baditugu aldatzen munduak berdin funtzionatzen segituko du eta aberatsak are aberatsago izanen dira eta pobreak are pobreago”. Hainbat GKEk ere dute instituzioen eraldaketa galdatzen: “Iraganeko hutsak ez errepikatzeko gisan, Hegoko herriak hobeki ordezkatuak izan behar dira, ahots ozenagoa behar dute finantza erabakietan. Instituzioak dekolonizatu behar dira, eskubideak eta herritarren beharrak erdigunean ukatzen dituzten instituzio gardenez eta demokratikoez ordezkatu behar dira”.

Sistema desorekatu horren adibide dugu, demagun, Igozpenerako Eskubide Bereziak deitu prozesua –estatuen diru erresebak osatzeko aukera dakarrena–. Herri pobreenek 22.000 milioi dolar jaso dituzte eta G7ko zazpi estatu aberatsek 280.000 milioi dolar. Hots, herrien arteko desberdintasunak areagotu besterik ez ditu egiten gaur egungo sistemak, estatuen aberastasunaren arabera banatzen dituelako eskubide horiek. Nola ez aipa, herri zaurgarrienak zaurgarri mantentzen dituen zorren sistema. Munduko Bankuak zein Nazioarteko Diru Funtsek prestatu maileguen baldintzak bidegabeak dira: herri aberatsendako interes tasa apalak baldin badira, herri txiroentzat izugarri altuak dira –Kanadarentzat %2,7 ingurukoa du Munduko Bankuak, Haitirentzat %13,3koa eta Angolarentzat %20,1ekoa, adibidez–. Gain-gastu horientatik eta mailegua ordaindu ahal izateko harturiko mailegu berriak direla eta, Hegoko herri pobreek



### MIA MOTTLEY

Karibeko Barbados uharteko Lehen ministroa bihurtu da klima larrialdia pairatzen dabiltzan herri zaurgarrien bozeramailea. Mundu mailako finantza-sistema errotik eraldatzeko gisan, proposamen multzoa du landurik, baina oraingo ez zaie leku nahikorik egin neurri eta aldaketa berri horiei.

18 aldiz ordaindu dute 1980an zor zutena. Zorraren deuseztatzea da Hegoko herri pobreek galdetzen dutena, dirua horretara bideratu beharrean, zerbitzu publikoen garapenerako, txirotasuna borrokatzeko edota trantsizio ekologikorako erabili ahal izateko.

### ZORRA ORDAINZEN, TRANTSIZIO EKOLOGIKOAN INBERTITU ORDEZ

Horrelakorik ez dute adostu Parisko gailurrean. Hala ere, "hondamendiaren klausula" sortzea onartu dute: hondamendi klimatikoa pairatuz gero, zorraren ordainketa gelditua izan zaie tarte baterako, lehentasunez kalteen konponketara bideratzeko dirua.

Klima aldaketari egokitzeko eta trantsizio ekologikoa bideratzeko jasotzen dituzten finantzazioak mailegu bidez direla salatzen dabil herrien zorpetzearen aurka borrokan dabilen CADTM taldea:

diruztatze horien %71 mailegu bidez da, hots, interesak ere ordaindu behar dituzte, are gehiago sakonduz zorraren zurrumbiloan. Horrek zer erran nahi du? Klima aldaketaren oinarrian ez badira ere, hondamendia pairatzen dabiltzala, eta gainera, dirua bideratzen dabiltzala larrialdiaren erantzule nagusi diren herri aberatsei.

Pariseko bileran berretsi dute behin-goan errespetatuko dutela 2009an harturiko –baina inoiz bete ez duten– konpromisoa: herri aberatsen zaurgarrienei urtero 100.000 milioi dolar banatuko dizkiete. Baina betikoa, dirutza hori ez da emaitza gisa bideratuko, baizik eta mailegu bidez.

Gaur egun, 9.000.000 milioi dolarrekoa da herri zaurgarrien zorra –bikoiztu egin da azken hamar urteetan–. Ondokoa ere gehitzen du CADTMek: "Zorra da berotze globalaren aliatu one-

na, garapen bidean dauden herrialdeak esportazio, nekazaritza intentsibo eta estraktibismoarekin jarraitzea behartzen dituelako, zorra dolarretan ordaindu ahal izateko".

Hori horrela, are kezkarriagoa da jakitea enpresa pribatuen esku-hartzea eskatu dutela Parisetik. "Publikotik euro bat ezarriko dugun aldi oro, euro bat gehituko zaio esfera pribatutik", Macronen hitzetan. Badakigu enpresa pribatuak Hegoko herrietako baliabide naturalei begira direla –gasa, mineralak, metalak ala petrolio–, eta errazki irudikatu dezakegu multinazional aseezinek egin ditzaketan xantaiak eta azpijokoak... Klima aldaketa bihurtuko da beraz herri eta multinazional aberastek aberasteko baliatuko duten drama. Zaurgarrien pobrezia zurrumbiloan atxikita. Zaharrak berri beraz finantza-sistema berrian. ●

 An advertisement for Zinkunegi Optika. The background is a close-up of a person's eye. On the right side, there is a logo consisting of a blue circular pattern of dots. Below the logo, the text reads:
 

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
 T. 943 420 624  
 info@zinkunegioptika.com  
 www.zinkunegioptika.com

 At the bottom right, there are icons for Facebook and Instagram.



# Miren Egiguren

EZ DA KIKILTZEN



## AGORTZEN EZ DEN ITURBURU BAT DAUKAT BARRENEAN



Venezuelatik itzuli zenetik, Tolosako Zuloaga auzoaren behealdeko parkean ematen ditu arratsaldeak Miren Egigurenek, bizpahiru lagunekin. Hantxe aurkitu dugu ekainaren bukaerako egun batean. Elkarrizketa egiteko lagunaren etxera igo garenean, Hugo Chavezen panpinarekin argazkiren bat ateratzeko eskatu dio Egigurenek gure Daniri. Komandantea begira dugula hasi gara hizketan.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

### **Bidarian jaio zinen 1947an. Nola oroitzen dituzu haurtzaroa eta gaztaroa?**

Pobrezia. Pobrezia ikusten dut, handia. Eta aukerarik ez. Orain umeak jaiotzen dira eta badakizu eskolara joango direla, gero gehiago ikastera; horrelakorik ez zegoen garai hartan. Gu nola ginen senide asko...

### **Zenbat?**

Hamahiru. Beti lana egin behar izaten genuen, ume txikiagoak zaindu, egurra ekarri... Horrelako gauzak.

### **Zenbatgarren senidea zinen zu?**

Hirugarrena. Eta niretzat zoragarria zen nire anaiak zaintzea. Haiekin pa-

seatzea larunbatetan eta jaietan iruditzen zitzaidan gauzarik ederrena. Hain dotoreak iruditzen zitzaizkidan, hainbeste maite nituen... Bat bizkarrean zangalatrau, beste bi eskuetan, eta bestea aurrean. Bizi guztia pasa dut umezain.

### **Eskolara ez zinen joan?**

Urte batean. Mojatara joaten ginen. Mojak ez ziren graduatuak, eta orduan guk ezin genuen zertifikaturik jaso. Klase partikularrak emango zizkigutela esan ziguten eta talde bat elkartu ginen, 14 urtekoak edo horrela, eta joaten ginen egunero-egunero eskolara. Orduan hasi nintzen ikasten, ikusten eta poza hartzen jakinduriari.

### **Handik gutxira neskame joan zinen Donostiara.**

Gure aita feriara etorri zen Tolosara, eta feriatik etorri zenean kartera bat ekarri zidan, eta esan zidan, «begira, neska, kartera hau ekarri dinat; etxe honetan lan asko zegon, hirezako lana ere bazegon, baina hemen ez daukan egoterik, joan egin beharra daukan edonora, bizitza bilatu beharra daukan. Heldu kartera hau eta beti beteta eduki». Gure amak Donostian bilatu zidan neskame-tokia, eta han egon nintzen.

Ni neskame, nire ahizpa zaharrena eraman zuten Iruñera interna, bigarren anaia istripuan hil zitzaigun hamazazpi urterekin, eta bigarren geratu nintzen, atzeko anaiak Arantzazura joan ziren





# Miren Egiguren

BIDANIA, GIPUZKOA, 1947



24 urte zituela, Euskal Herrian izan zezakeen bizimoduak bete ez, eta misiolari sekular joan zen Miren Egiguren, Venezuela eta Kolonbia artean banatzen duten Guajirara. Hiru urte eman zituen han, eta, jaioterrira itzuli arren, laster abiatu zen berriro. Misioak utzita, Caracas ondoko Petare auzoan eman ditu lau hamarraldi, lan komunitarioan eta irakasle, besteak beste. Hari buruz gehiago jakiteko, irakurri Leire Ibargurenen *Petare* (Txalaparta, 2022) eta ikusi Jon Garañoren *El método Julio* (2010).

fraide... Joan egin behar ziren, etorkizuna bilatzera.

## Zenbat denbora egin zenuen neskame?

Hiru bat urte.

## Zer moduz?

Ba, neskame... Jan aparte, uniformearekin, eguerdietan han... Nik egin nituen negarrak gauean. Denak festan, Bidania zer gertu Donostiatik, eta nik hara joateko libertaterik ez.

## Eta horren ostean?

Nire ahizpa batxilerra eginda etorri zen Iruñetik, eta Donostian ofizina batean egin zuen lana, eta gure amak ikusten zuen bat neskame eta bestea ofizinan... Lana lortu zidan Garibai kaleko estanko batean. Baina nik kontuak ateratzen ez nekien; konturatu ziren, eta jarri zidaten maistra bat, ikasteko. Hamabietan etortzen zen egunero andereño bat, etxe-koandreak pisura igotzen ginen, eta bi astean jarri nintzen fin-fin. Orduan Nazaret zentrora joaten hasi nintzen, kultura orokorra ikastera.

## Ikasteko gogoia zeneukan.

Jakin nahi nuen. Ondoren, estankotik atera eta beste leku batera joan nintzen lanera, baina ez nintzen hain gustura egon. Gero politika zaharrearantz sartu nintzen, han ere konprometitu nintzen, eta orduan gorabeherak, gure aitak ere jakin zuen, eta...

## Frankismoa zen, eta kezkak zeneuzkan.

Bai. Euskalduna nintzela, gu ez ginela espainolak. Oso erlijiosoak ginen gure familian, ni behintzat bai, eta gogoratzen naiz Santiago egunean lortu nuela mezetara ez joatea, ni ez nintzelako espainola eta hori festa espainola zelako. Gogoratzen dut matxinada pertsonal bat bezala.

## Politikan sartu zinela esan didazu.

Gauza asko ikasi nituen, multigrafoa erabiltzen adibidez. Fotokopiak ateratzeko eta. Gerora Venezuelan balio izan zidan, inork ez zekien-eta makina horiek erabiltzen, eta bazeuden, jendeak erregalatuta. Nik banekien stencilarekin nola jarri, tinta bota... Merezi izan zuen.

## Politikan sartu bai, baina gero apartatzea erabaki zenuen.

Euskal Herrian gelditzen banintzen lotuta nengo.

## Zertan ibili zinen zehazki? Kontatuko didazu?

Ez. Ez dut ezer jakin nahi hartaz, ez pertsonaz ez ezertaz. Kontua da nire bila zebiltzala.

## Eta Venezuelara joateko aukera suertatu zitzaizun?

Nik ez nekien zer egin nire bizimoduarekin. Nire lagunek nobioak hartzen zituzten, eta ezkondu egiten ziren. *Chevere*. Nik ere bai hartu nuen nobioa, baina...

## Ez zenuen hori nahi.

Ez zidan betetzen, ez nintzen ondo sentitzen.

## Baina bizimodu hori zenuten aukera bakarra.

Bestela gaizki ikusia zinen. Bide hori zen normala, betebeharrak bat zen, gauza kultural bat, ez sentimenduen kontu bat. Nik ere baneukan nobioa, baina ez nuen arrisku hori eta konpromiso hori hartu nahi. Orduan esan nuen, hemendik joango naiz, misioetara joango naiz, eman egingo dut, egingo dut ahal dudana, eta hala beste problema hori ere atzeratuko dut, eta harri bakarrarekin bi txori. Halaxe. Apaiz batekin hitz egin nuen, hark jarri ninduen harremanetan Madrileko asoziazio batekin, AMS Misiolari Sekularren Elkarte. Sekularrak, hau da, ez ziren mojak, ez zegoen botorik egin beharrik, boluntarioak ginen. Eta halaxe tokatu zitzaidan Guajirara joatea.

## Joan zinenean ez zenuen pentsatzen hainbeste denbora geratuko zinenik.

Ni joan nintzen nire bizitza akklaratzera, eta zer pasa, bizi guztia egin eta oraindik akklaratu gabe daukat.

## Nolakoa zen Guajira?

Guajirako penintsula zatituta dago, zati bat Kolonbiarena da eta bestea Venezuelarena. Hangoak guajiroak dira, beste kultura bat... Zera, Euskal Herria bezalaxe. Haiek zatituta, gu ere zatitu gintuzten frantsesek alde batetik eta espainolek bestetik, berdin-berdinak izanda.

## Hangoarekin identifikatuta sentitu zinen, orduan.

Han identifikatu eta han ikasi nuen herria zer zen. Nola sentitzen zen herria, haiek erakutsi zidaten. Beste esperientziekin ikasten duzu eta irekitzen zaizu mundua zuri.



### Misioetan zer moduz konpondu zinen?

Aurrena apaizak esan zigun doktrina ematen hasi behar genuela. Hango umeak guajiroak ziren, erdaraz ez zekiten. Ni hemen Bidanian eskolara joanda, atximurka egiten ziguten mojek euskaraz hitz egiten genuelako, eta tratu txarrak ematen zizkiguten euskaldunei, gauza izugarria; orduan, nik horrelako esperientzia eduki eta hara joan eta berdina egitea ume horiei, mina ematea... Segituan joan nintzen kaputxinoetara eta apaizari esan nion nik lan egingo nuela, baina ez nuela katekesirik emango. Nire herrian izandako esperientzia kontatu nion, esan nion han beste hizkuntza bat zeukatela, eta ez niela minik emango. Apaizak onartu zuen, eta orduan hasi nintzen sozial aldetik lanean.

### Zenbat denbora egin zenuen han?

Hiru urte. Guajirako herri hartan esko-

lak martxan jartzea lortu genuen, ura eta argia ere jarri genituen, eta nik lana egin nuen.



**“  
Metrailetekin  
etorri eta etxea kendu  
zidaten, eta kalean geratu  
nintzen semearekin, baina  
berehala izaten nuen  
lan egiteko gogoa  
berriro”**

### Horren ostean Euskal Herrira itzuli zinen?

Bai. Aita hil zen arbolatik erorita, eta etorri egin nintzen. Baina berriz joan nintzen Venezuelara.

### Misioetan?

Nik nahi nuen lanean segitu; gustatu egin zitzaidan langile soziala izatea, asko, eta ikusten nuen zenbait jenderi ematen zeniola beste alternatiba bat pozez bizitzeko. Ez nuen elizarekin joan nahi, nik nahi nuen libre joan, eta orduan Azpeitiako moja bat ezagutzen nuen, orain hil berria da, Arantxa, eta haren bitartez ezagutu nuen bere lagun bat, Eladia, asturiarra. Hark zeukan eskola bat, eta hara joan nintzen. Baina hori baino lehenago klinika batean ibili nintzen lanean, liburutegi batean ere bai... Lana bilatzen nuen nik neuk.

### Venezuelako zer eremutan izan zen hori?

Hori Caracasen. Gero mendira joan nintzen, Petarera, eta nire bizi guztia han egin dut.

### Irakasle aritu zara, besteak beste.

Eskola handi bat zegoen, jesuitena, baina horra ere auzoko onenak joaten ziren, herriko miserableak ez. Jesuitek onartzen ez duten arren, hori horrela da. Eskolak arratsaldeko bost eta erdietan amaitzen ziren, orduan zuzendariari eskatu genion eskola arrunten ostean ere gelak erabiltzen uzteko, eta bost eta erdietatik zortzi eta erdiak arte beste umeak etortzen ziren ikastera, gure auzoko umeak. Bost eta erdietan ateratzen ziren ohiko ikasleak, beren uniforme, bizkar-zorro eta guzti, dotore-dotore, eta gureak iristen ziren, koadernoak plastikozko poltsatan, uniformerik gabe, txankletetan... Baztertuak, *los chorreaos*, horiek ziren gureak. Nik eskolak ematen nizkien lehenik normalei eta ondoren anormalei. Eta, une batean, gure komunitatean ez zegoen irakurtzen eta idazten ez zekien haur bakar bat ere. Hori lortu genuen.



## Hurrei irakurtzen eta idazten irakasteko metodo berezi bat ere sortu zenuen, Julio metodoa.

Ni maistra berezia izan naiz. Eskolara joaten nintzen, eta aurreneko lana, ikasmahaiak zirkuluan jartzea izaten zen. Ikasmahaiak lerrotan jarrita bata bestearen atzean, bai gauza izugarria, hotzikara ematen dit, eta maistrak mahai handi bat ez, maistrak ikasmahai bat besteek bezala. Jarrera aldetik-eta, umeak oso zailak ziren, eta sumatu egin behar izan nuen nola egin. Gertatzen zen gelako mutil baten aitak bestearen aita akabatu izana, beste honek haren lehengusua akabatu izana, eta gorrotoa zegoen, orduan nik poltsa bat eramaten nuen koaderno beteta, eta eskatzen nien han idazteko niri gauzak,

**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

Ezlagi Industrialdea 21, HERNANI | 943 55 25 12 - 16  
info@talleresmitxelena.eus | www.talleresmitxelena.eus

**MARCOS**  
okindegia

**Benetako antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

adiskidetasuna eraikitzen joateko nire eta ikasleen artean. Nik egunero irakurtzen nituen haien idatziak, eta erantzun egiten nien, eta norbaitek jarrera txarra bazuen handik tiratzen nuen, esaten nien sekulako tristura eragiten zidala, afektibotik jotzen nuen beti. Bi liburu baino ez neuzkan, *Printze txikia* eta *Platero eta biok*. Lehena alderdi afektiboa lantzeko, eta bigarrena hizkuntzaren aberastasunerako erabiltzen nituen. Makramea egiten irakatsi nien, pastelak egiten, gero saldu egiten genituen, eta lortutako diruarekin hondartzara joaten ginen egun pasa. Badakizu zer den hori?

### Hangoaren falta daukazu?

Urrian sei urte izango dira itzuli nintzela, eta atzo izan balitz bezala da. Han bizi naiz egunero-egunero. Oso goiz altxatzen naiz hangoen berri izateko.

### Zergatik itzuli zinen?

Gaixotu egin nintzen, bertigoak nituen. Oso gaizki nengoen, ibili ezinik, besteei eskua emanda ibili behar, eta etorri nintzen hona eta... Hainbeste urteren ostean hango martxa besteen eskuetan utzi beharra oso gogorra izan zen. Medikuak esan zidan sekulako depresioa neukala. Denari uko egin behar izatea izugarria izan zen.

### Hobetu zara pixka bat?

Bai, hobeto nago. Gero lan hau tokatu zitzaidan [adineko emakume bat zaintzen du]. Ni ezer gabe etorri nintzen. Ezer gabe. Hona etorri eta laguntzarik banekuan galdetu nuen, eta esan zidaten nire familiak lagundu beharko zidala. Ez didate laguntzarik eman, ez dut ulertzen zergatik. Gazte joan nintzen, baina sei urte kotizatuak nituen jada. Eta orduan lan hau atera zitzaidan, Mari Carmen zaintzen. Gaztetan berarekin bizi izan nintzen, lagunak gara.

### Leire Ibareguren zure bizipenak bildu zituen iaz, Petare izeneko liburuan. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ederki. Oso ondo moldatu naiz berekin. Barrenak husteko gogoia neukan, hitz egiteko, esateko. Leire beste batekin etortzen zen, Mirenekin, eta ententitzen zidaten nik ententitzea nahi nuen moduan, orduan niretzat izan da gogo-

tasun bat. Baina liburu horretan ez dago nik bizi izan dudana guztia. Telebistako programa pila batean agertu izan naiz Venezuelen, han mundu guztiak ezagutzen nau.

### Nola ikusten duzu Venezuelako egoera gaur egun?

Orain ez nuke ezer esango Venezuelatik, asko kanbiatu da. Baina ni gobernua- rekin nago. Jendeak esaten du ez dutela hau edo bestea egiten, baina kontua da lotuta daudela. Alternatiba guztiak lotuta daude, Kuba ere nola dago ba... Nahikoa egiten dute aguantatzearekin.

### Itzultzea pentsatu duzu?

Ez dut uste gehiago itzuliko naizenik. Sekulako tristura da, baina hori da erreallitate. Gainera, lanean ari naiz, eta diru hau behar dut. Seme-alabak dauzkat, hango semeari lagundu behar diot, dirua bidali behar diot hilero. Eta seme-alabak betirako dira.

**“Ez dut uste gehiago itzuliko naizenik. Sekulako tristura da, baina hori da erreallitatea. Gainera, lanean ari naiz, eta diru hau behar dut, hango semeari laguntzeko”**

**Hemengo egunerokoan zer moduz ari zara moldatzen?**

Oso pozik nago, badakizu zergatik? Gauza garrantzitsu bat egiten ari naizelako, bi pertsona zaintzen, eta sekulako segurtasuna ematen diet. Oso berezia naiz beraiekin. Han arrasto oso handiak utzi ditut, eta egunen batean ezabatuko dira, baina denbora asko falta da horretarako.

Oso sinestuna naiz. Ez dut elizan sinesten, baina Jainkoan bai. Oso esperientzia gogorak gertatu zaizkit. Metrailetekin etorri eta etxea kendu zidaten, eta kalean geratu nintzen semearekin, baina berehala izaten nuen lan egiteko gogoia berriro. Pistola buruan jarri, lepotik heldu, eta hil egingo nindutela esan didate, eta sustoa pasa ostean berriro ekin diot. Nork ematen dit indar hori? Zerbait eduki behar dut barrenean. Nik esaten dut iturburu bat daukadala, agortzen ez den iturburu bat. Beste galderarik daukazu?

### Zer eskatzen diozu orain bizitzari?

Hainbeste esperientzia gozo dauzkat... Txarrak alde batera utzi, onekin bizi, etxe honetakoak ondo zaindu, urte asko irauteko, eta nik ere osasun ona eduki beraiekin urte askotan bizitzeko. Ez dut ezer gehiago nahi. Eta, klaro, ikusi nahi nuke Euskal Herria libre [barreak]. ●



## Planifikazio ekonomikoa, alternatiben ardatz

**A**lternatiba ekonomikoek ez daukate leku handirik ikasketa ofizialetan. Pairatzen dugun krisi ekosozialean, erdigunean egon beharko lirateke. Ikasketa programetan, epe laburreko errentagarritasuna bermatzen ez duten ikasgaiak bazterreratuak izan dira, hautazkoak bilakatuta edo, okeragoa dena, programatik desagertuta. Horrela gertatu da ekonomian, Pentsamendu Ekonomikoaren Historiarekin, ekonomiaren osotasuna ulertzeko beharrezkoa den gaia. Sarritan, horren inguruan ikasteko, akademiatik kanpo ikastea da bidea, gertatu zitzaidan moduan, ICEAn edo Ekonomia Kritikoa elkarteetan.

Aurten, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan Historia Ekonomikoa irakasteko aukera izan dut. Ez da sorpresa izan, oinarri moduan erabiltzen den eskuliburuaren 431 orrietatik, sistema ekonomiko planifikatu sozialistak azaltzeko soilik 9 orri erabiltzen direla; eta, noski, nabarmentzen dena horien porrota da. Kapitalismoaren porrota beste edizio baterako izango da. Mami horrekin erraza da ondorioztatzea planifikazioa (eta hedaturaz, sozialismoa) ez dela praktikoa ezta gomendagarria ere, diktadurekin lotuta. Muga (ideologiko) horiek hausteko, bi proposamen sozialistak (marxista eta libertarioa) klaserak ekarri genituen, historia ekonomikoa era kritikoa irakatsi behar delako, baina baita seriotasun akademikoaren pean ezkutuan mantentzen diren hain-

Usteltzen ari den testuinguru ekonomiko eta sozialaren aurrean, eskaintzen ari zaigun ustezko konponbidea merkatuan sakontzea da, gehiengoarentzat kaltegarria dena

bat muga hausteko ere, hausnarketa bultzatuta, kapitalismotik haratago dauden ereduak pentsarazteko.

Planifikazioaren inguruan, azaltzen eta errepikatzen den eredu Sobietar Batasuneko bost urteko planena da, baina, egiari zor, gaia askoz konplexu eta aberatsagoa da. Subkontziente kolektiboan oraindik dirau merkatua, bere akatsekin, hobe dela planifikazioaren aldean; lehenengoa askatasunarekin lotzen da eta bigarrena diktadurarekin. Hala ere, errealitateak justu kontrakoa dela dio. Polanyik merkatu askatasuna eta diktadura faxisten arteko harremana sakonki landu zuen, eta liberalen proposamen ekonomikoen ondorioak agerian jarri zituen.

Ekonomia antolatzeko planifikazio ez zentralizatueta oinarritzen diren



ENDIKA ALABORT  
AMUNDARAIN  
EKONOMIALARIA

ereduak dauzkagu, erabakiak elite edo burokrazia baten menpe uzten ez dituztenak. Horien artean, nabarmendu daitekeen bat da partaidetzako ekonomia. Ekonomia planifikatu deszentralizatu sozialista proposatzen du. Erabaki ekonomikoak egituratzeko mekanismoa parte-hartzean oinarritzen du, ez prezioetan. Proposamen hori 1990eko hamarkadaren hasieran jaio zen, planifikazio zentrala kritikatzeko eta eredu kapitalistetatik ihes egiteko.

Azken hamarkadan Ziber Komunistoaren proposamena (CibCom) zabaldu da. Proposatzen dutenen artean, komunista marxistak eta libertarioak aurki ditzakegu. Ekonomiaren planigintza sozialistaren aukera egungo baldintza teknologikoetan oinarritzen du. Aztertzen ditu ekonomia sozialista demokratikoki planifikatzeko, bidegarria eta eraginkorra eraikitzeko, beharko liratekeen oinarri instituzional, ekonomiko eta konputazionalak. Nabarmentzekoa da ikuspegi hori ez datorrela bat ekoizpen-bitartekoen ez-tatalizazio hutsarekin, ezta merkatu-sozialismoaren proposamenekin ere.

Usteltzen ari den testuinguru ekonomiko eta sozialaren aurrean, eskaintzen ari zaigun ustezko konponbidea merkatuan sakontzea da, gehiengoarentzat kaltegarria dena. Ekonomiaren planifikazio demokratikoa eztabaidaren erdigunera ekartzea beharrezkoa da, teoria eta praktikak ezagututa eta zabaldua. ●



# Plantak egin



**TERE MALDONADO**  
FILOSOFIA IRAKASLEA

Ingurumaririk gabe, buru-belarri sartuko naiz harira: eskola publikoaren aldekoak oso atseginak izaten ari gara gauza batzuk eztabaidatzean. Serio, itunpeko ikastetxeekin gertatzen ari dena onartezina da. Zehaztasun eta zintzotasun osoz ahalegintzen ari gara argudiatzen, iritzi desberdin eta legitimoen eztabaida batean egongo bagina bezala. Baina, Zeusarren, ez gaude! Formalki bai, badakizue, norberak nahi duena pentsa dezake, lurra laua dela barne. Iritzi guztiak errespetagarriak direla dioen iritzia zabaldua dago, baina iritzi bat oso zabaldua egoteak ez du egiazko bihurtzen.

Eskola publikoaren aldeko argudio, gertakizunen deskripzio eta datuen aurrean batzuk kexatu besterik ez dira egiten: "Gure kontra zaudete". Ez bereziki, portzierto, Kristau Eskolakoak, nahiko isilik daudenak, hatzamarrak gurutzatuta oin-puntetan pasatuz, ea euren lotsariak agerian ez diren gelditzen, ekaitza noiz pasako zain, ea legea behingoz ezartzen den eta ahalik eta zatirik handiena ateratzen duten. Beste batzuk ukondoetaraino latexezko eskularruak jantzi eta digresio eskisitoetan sartzen dira, inora ez doazenak. Baina ez diete erantzuten mahai gainean ipinitako datuei.

Benetan esan dezakegu hau debate bat dela? Eztabaidatu beharrean, batzuk plantak egiten ari dira. Argudioak baino askoz eraginkorragoa den zerbait daukate beren alde: boterea, agintea, gehiengo parlamentarioa. Eta jakitun dira. Itxura mantentzen dute, auzo-lotsa estratosferikoa izan ez dadin. Batzuek sumindura agertzen dute, *nola da posible gure ikastetxearen kontra honela jotzea* esanez. Berdin dio guk erakustea ez goazela inongo ikastetxeren aurka, kontua dela zelan gastatu diru publikoa, eta zein gauza zoragarri ordaindu behar duen norberak, izan igerileku olinpiko bat edo balio katolikoetan oinarritutako heziketa. Baliabide publikoak justizia- eta ekitate-irizpideen arabera banatu behar dira, berdintasun-printzipioa errespetatuta, eta hain zuzen hori bermatzeko, premia gehien duenari gehiago emanda. Ezin da dena erretorika huts bihurtu, egia-ostearen seinale.

Hauteskunde-kanpainak, gero eta gehiago publizitate-teknikez baliatuta, oinarrituta daude esloganak errepikatzen dituzten argudioetan, aurkakoak dioena aintzakotzat hartu barik. Min handia egin digu horrek, eztabaida jator batek ez baitatza hitza txandaka hartzean, zuk zeurea esateko eta nik neurrea, zuri bost axola zaizularik zer esan dudan nik eta, niri, gauza bera.

Esango didate ezin ditudala nire kontrako iritziak indargabetu, trukean nireak besterik ez baititut eskaintzen. *Usteak erdi ustel* dioen esaera egiazkoa bada, guztiontzat aplikagarria behar du izan. Onartuko dut. Horregatik eskatzen diet, ez niri, baina bai Urola Kostaldeko Eskola Publikoaz Harro Plataformak ekainean legebiltzarreko agerraldian esandakoari erantzutea. Edo Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateari. Edo Inklusioaren Aldeko Legegintzako Herri Ekimenaren ordezkariari. Edo Aiaraldea Hezkuntza Publikoa Bizirik Plataformakoari. Edo Guraso Elkarte Federazioari, edo Hezkuntza Laikoari. Edo... ez zaizkit guztiak kabitzen! Eskola publikoaz harro gaude, bai, baina, ni bereziki harro nago emakume eta gizon puska horien aldean egoteaz; lana, denbora, ahalegina, lo-galtze, pazientzia, pentsamendua, bihotza, arima eta poza ipintzen dituztenak guztien ongizatearen alde. Trikimailu erretoriko edo marketin-teknikarik gabe, korrontearen kontra, itotzen gaituen individualismo konpulsibotik urrun. Hori bai auzolana! Pena handia, eztabaida irabazteak politika publikoetan eraginik ez izatea. Baina hori ez dago gure esku oraintxe. ●



ANTTON OLARIAGA

## Ez gara elkarte, kooperatiba baizik



HIRUKI LARROXA  
KOOPERATIBA

**E**tengabe azpimarratu behar dugu jada ez garela elkarte edo kolektibo bat. Izan ginen, bai. Ez baikenuen modu kolektiborik transmaribibollo aktibistak izateko (ez, ez gara banakako aktibismoen oso aldekoak). Eta bide batez, elkarteak aprobeztatzen genuen fakturatzeko ere.

Baina 2020an elkarte izatetik kooperatiba izatera pasa ginen. Edo, bestela esanda, eragile soziala izatetik enpresa izatera igaro ginen. Irabazi asmorik gabekoa eta gizarte ekimenekoa, bai, baina enpresa bat.

Euskal Herrian mugimendu sozio-politiko oso potenteak ditugu. Baita elkartegintza oso aktiboa ere. Baina ez gaitezen engaina, elkarte askok enpresek bezala jarduten dute. Eta horrek nahasmena ekar dezake, baita batzuetan kontraesana ere.

Eta justuki gu ez gara kontraesan eta nahasmen horretatik salbu. Horregatik egin genuen Ehgam-en (Euskal Herriko Sexu Askapen Mugimenduan) militatzeko eta Hiruki Larroxa Kooperatiban lan egiteko apustu argia. Aktibismoa eta lan ordaindua edo esparru profesionala bereizteko beharra genuelako.

Hala ere, oso zaila da. Ez bakarrik esparru soziokulturalean lan egiten dugunontzat militantzia eta ordaindutako lana bereizten dituen lerroa oso lausoa delako. Baizik eta etengabe egon behar dugulako

txanoz aldatzen: "Orain aktibista gisa nator!" edo "orain profesional gisa nator!" bezalako esaldiak behin eta berriz tartekatuta.

Hori bai, nahiago dugu ahalegin hori egin, eta ez erori arriskutsuak izan daitezkeen dinamiketan. Aktibismoak kalekoa behar duelako izan. Eta zoritxarrez, gure borroka sozialak kaletik bulegora eta bulegotik instituziora igarotzen ari gara. Hortik arriskua. Benetako arriskua, gainera.

Izan ere, gure borroken profesionalizazioaren eta instituzionalizazioaren ondorioz, diskurtso politikoak eztatzen eta husten, politikari profesionalak laudatzen, dinamika asanblearioak alde batera uzten eta, okerre, herri mugimenduen desartikulazioan laguntzen gabilta.

Beraz, kooperatiba garen aldetik, kritikoak eta kontsekuenteak izan behar dugu, eta atzerapausoa eman. Kaleko aktibismoaren zein herri mugimenduen espazioak errespetatzeko.

Gure kasuan, esaterako, eta kooperatiba transfeminista izanda, auzoko maiatzaren 17ko antolaketa ez dugu parte hartuko edota ekainaren 28an komunikabideetan adierazpenak ekidin behar ditugu.

Ziur aski ahalegin zaila, noski, baina beharrezkoa. Erantzukizun politikoagatik (eta profesionalagatik) bada ere. ●

## Geure baitako argazkietan



CASTILLO SUÁREZ  
IDAZLEA

**G**ogoratzeko ariketak fikziora jotzea dakar. Eta ezinbestekoa da gogortzea jarduera selektiboa izatea, biziraupen-estrategia bat den heinean; gauza batzuk gogoratzen ditugu, eta ez beste batzuk. Gertatzen dena da ez garela estrategia horietaz jabetzen eta oroitzapena gauza segurutzat hartzen dugula. Gainera, memoria da bizi dugunaren kontakizuna eraikitzekeo dugun mekanismoa. Egia esan, guztion bizitza zatikatua da. Gogortzean, kontakizun bat eraikitzen dugu eta zentzua ematen diogu. Eta eraikuntza hori fikziozkoa da. Gauzak nola bizi ditugun ere gure biziraupen strategiaren parte dira. Horiek horrela, batzuetan ematen du

gertakariak ezinegona ekarriko digutela bakarrik. Samina eta ondoeza. Geure buroak zentzua eman nahi dio zentzugabea denari. Malkoak erortzen zaizkigu eutsi nahi badiegu ere. Neure baitako argazkietan arakatzan ari naiz irribarre baten bila eta bikote baten argazkia aurkitu dut. Muxu eman diote elkarri Altsasuko gazteek kartzelan zenbat egun daramatzaten zenbatzen dituen euskarriaren aurrean, turisten jomuga batean egongo balira bezala. Kalearen beste aldetik ez nuen entzun zer esan zioten elkarri. Maitasuneko hitzak izan zirela pentsatu nahi dut. Maitasuna baita ezkutatu ezin den gauza bakarra. Fikziozkoa ez den bakarra. ●



# Itxaropen-zerrenda



**BEÑAT MUGURUZA  
ASEGINOLAZA**  
IRAKASLEA ETA  
IKERTZAILEA

**B**ikotea osatzen duten bi lagunekin topo egin, haiekin hizketan hasi, eta haietako batek *itxaropen-zerrenda* esan du, nahastuta, *itxaron-zerrenda* beharrean. Haren bikotekidea konturatu da, konturatu denez, baina ondo disimulatu du. *Hiztripuaren* autorea euskara ikasten ari da, eta duela gutxi egindako azterketaren emaitzen zain dago. Gerora jakin dut ez duela proba gainditu, eta etsitu samar da-goela.

Agurtu dugu elkar, eta ni lapsusa gogoan: “Hitz-joko ona Osakidetzako itxaron-zerrendez hitz egiteko; hitzordurako deia itxaron baino, noizbait deituko dizuten itxaropena adierazteko”, pentsatu dut neure baitan. Eta segidan bururatu zait, nola ez, Twitterren arrakastatsua izan daitekeela, eta agian biralizatu egin daitekeela, nire neurri apalean. Edo, zer demontre, zergatik ez ARGIAko zutabea bera gai horren gainean idatzi.

Baina Twitterren umoretik joko nuke, eta Osakidetzako kontuak ez daudela iji eta aja ibiltzeko, txiste eskas batekin arinkeriatan erortzeko. Idazten ari naizen momentuan bertan begi bat pixka bat gorrituta daukat. Hitzor-

*Itxaropen-zerrenda esan du, nahastuta, itxaron-zerrenda beharrean.*

*Hiztripuaren autorea euskara ikasten ari da, eta duela gutxi egindako azterketaren emaitzen zain dago*

du telefonikoan erizainak diagnostiko moduko bat egin dit, aurrez aurre ikusi gabe. Baina farmaziara joan naiz gomendatutako kolirioaren bila, eta botikariak erabat bestelako diagnostikoa egin du, nire begiari bertatik bertara behatuta. Erizainarekin izan dudana hurrengo hitzordu telefonikoan irudituko

zait pixka bat presionatu behar izan dudala sendagilearekin aurrez aurreko kontsulta lortzeko. Sare sozialetan horri buruzko txisteak egiteak nori egiten dio mesede?

B planarekin aurrera egin dut, bistan denez, eta zutabearekin nahiko aurretatuta nagoen honetan konturatu naiz agian ez zuela *itxaropen-zerrenda* esan nire lagunak, baizik eta *itxaropen-gela* -itxarongela beharrean, noski-. Eta hala balitz -ez bainago ziur-, are hitz-joko hobe irudituko litzaidake; beste adiera mamitsu batzuk izan litzake. Baina nora narama honek?

Azkeneko, pentsatu dut hizkuntza oso emankorra izan daitekeela pentsamenduaren garapenerako, baina berehala ikusi dut txanponaren beste aldea: zein azalekoa izan daitekeen, ez badu askoz gehiagorako ematen. Eta neurera ekarrita, ez dut ondorioztatu nire hizkuntzaren mugak direnik nire munduaren mugak, Wittgenstein-ek esaten zuen bezala, baizik eta hitz-joko xeble batetik eratorritako burutazioek baldintzatzen dutela neurri batean nire pentsamendua -edo, nire kasuan, ideia solteen anabasa-. Batzuetan, kasik, mugatzeraino. ●

## USURBIL MUSEO IREKIA

**Usurbilgo kale eta hormetako ondarea ezagutu nahi duzu?**

Uda honetan, astebururo, bisita gidatuak!



650usurbilbizi.eus/agenda

*Beste mundu bat posible da!*

650  
USURBIL  
bizi




HERIOTZAREN 30. URTEURRENEAN

# Nola eta zergatik hil zuten Juan Calvo Ertzaintzaren komisarian?

1993ko abuztuaren 20an Juan Calvo Azabal hil zuten Arkauteko komisarian, Gasteizen. Gorpuak biolentzia arrastoak zituen, eta gasa zerion ahotik. 1995ean zortzi ertzain zigortu zituzten zuhurtziagabekeria delituagatik, inork ez zuen lanpostua galdu ez espetxea zapaldu, inor ez zuten kondenatu tratatu txar edo torturengatik. 30 urte betetzear direla, ARGIAk kasuaren inguruko informazio berriak lortu ditu: gorpuaren azterketa mediku eta forentseak; Calvo gorpu agertu aurretik artatu zuen erizainari elkarrizketa; eta gertatua “argitu gabe” geratu zela dioen lekuko zuzen bakarraren adierazpena, besteak beste. Nola eta zergatik hil zuten Juan Calvo Ertzaintzaren Gasteizko komisarian? 1995ean epaiketa amaitzean, galdera horiek erantzunik gabe geratu ziren. ARGIAk publiko egiten dituen informazioek galdera berriak sortzen dituzte, eta orduko ziurtasun bakarra indartzen: egia ofizialak ez du azaltzen gertatu zena.

**H**as gaitzen bere garaian jakin zena laburbiltzen. Lehenik eta behin, honel laburbildu zuen Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak Calvoren heriotza prentsa ohar baten bidez, abuztuaren 20ko arratsaldean. “Gaur goizaldean, ostirala, atzo arratsaldean Langraitzen (Araba) atxilotua izan zen pertsona hil da, Bilbon taxi bat lapurtu eta pertsekuzio ikusgarria burutu ostean. Atxilotuak, hiru aldiz ospitaleratuta egon zena hainbat psikiatrikotan, konortea galdu zuen nerbio-krisi bortitz bat izan eta lagundu nahi zioten ertzainei eraso egin ostean”. Oharrak azalpen gehiago ematen zituen jarraian. Calvo 18:30ak aldera atxilotu zuten, “itxuraz nerbio-krisi egoera batean erresistentzia” jarri ostean. Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten “besoan” zuen “ubeldura” artatzeko eta komisariara eraman zuten atxilo. Han Calvoren portaera “normala” izan zen, harik eta 4:00ak aldera bere burua kolpatzen hasi zen arte “ziegako hormen aurka”. Ertzainak sartu ziren ziegara orduan, Calvo eraso egin zien, eta poliziek menderatzea lortu zutenean, konortea galdu zuen. Anbulantziak ospitalera eraman zuten Calvo, eta bertan baieztatu zuten heriotza.

 ZIGOR OLABARRIA OLEGA

 Juan Calvo atxilotua izan ostean eta hil aurretik, ziurrenik komisarian ateratako argazkian.



Egin egunkariak, ordea informazio gehigarria argitaratu zuen, "Santiago Ospitaleko iturri seguruek" emana: Calvoren gorpuak ubeldura handiak zituen gorputz osoan, eskumuturretan, baita biriketako edema akutua ere, eta anbulantzia eraman zuten medikuek maskarak jarri behar izan zituzten hildakoak botatzen zuen gasaren ondorioz. Aurre-rago argitaratu zuen, Segurtasun Sailak zioenaren aurka, Calvok orduak eman zituela lotuta eta immobilizatuta hil aurretik, eskumuturrean zituen arrasto sakonek adierazten zutenek.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek, Elkarri mugimenduak edo Herri Batasunak torturei egotzi zieten heriotza. Segurtasun Sailaren azalpen eza kritikatu zuten Eusko Alkartasunak edo Euzkadi-ko Ezkerrak.

### SEGURTASUN SAILAREN BERTSIO BERRIA

Abuztuaren 23an, lehenbiziko oharra zabaldu eta hiru egunera eta aipatu informazio eta erreakzioek behartuta, gertatuaren bertsio berria eman zuen Segurtasun Saileko bigarren arduradun nagusiak, José Manuel Martiarena kontseilariordeak.

Calvoren ustezko bortizkeria eta portaera "arraroa" gehiago nabarmendu zituen Martiarenak bere kontakizunean, eta onartu zuen ertzainek borrak eta gasa erabili zutela atxilotuaren aurka. Hainbat puntutan lehenbiziko bertsioarekin kontrastean sartu zen bigarrena.

Ustezko liskarrari dagokionez, Martiarenaren eta Segurtasun Sailaren esanetan, horrela izan ziren gertakariak. Calvok komunera joatea eskatu zuen 3:45etan, ertzain bati ukabilkada eman zion bertan, eta hiru ertzainen artean saiatu ziren atxilotua menderatzen. Baina, "ezinezkoa zen gizon hura kontrolatzea, eta gertakarien itxura ikusita, agente batek defentsa espraia erabili zuen. Gasak ez zion eraginik egin eta atxilotuak agresibitatea areagotu zuen". Ertzainek kalabojoetan itxi zuten Calvo, baina bi ate txikitu zituen kalera irten arte. "Jada kalean, zortzi agentek Calvo immobilizatu eta eskuburdinak jarri zizkioten"; jarraian pultsua "oso ahula" zuela ohartu ziren poliziak; anbulantziak eraman zuen orduan ospitalera.

"Bere gaixotasunaren biktima izan da", ondorioztatu zuen Martiarenak. Ertzaintzaren zaintzapean zegoen herritarrak buruko gaixotasuna izateak erakundearen eta agenteen ardura arintzen



zuen antza, larriagotu ordez.

Garai hartako Ertzaintzaren arduradun politiko nagusiak, Juan Mari Atutxak, ez zuen adierazpenik egin irailaren 16ra arte beren zaintzapean hildako herritarraren inguruan. Behartuta egin ere, Gasteizko Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordean, Euzkadiko Ezkerrak eskatuta. Bere sailak emandako bigarren bertsioa berretsi eta osatu zuen, eta ertzainen jokabidea babestu zuen erabat: "Ez zen egon delituri egiteko borondaterik, ez desproporziarik".

### EPAIKETA ETA SENTENTZIA

Heriotza eragin zuen zuhurtziagabekeria delitua leporatu zien Gasteizko Auzitegi-ko Hirugarren Instrukzio Epaitegiak zortzi ertzaini, 1994ko otsailean jakinarazi zuenez. Orduan ezagutu zen ofizialki autopsiaren emaitza: gorpuak hamarnaka kolpe eta biolentzia arrasto zituen, baina Calvo Ertzaintzaren espraien gasa arnas-teagatik hil zen, eta zehazkiago, gasak sortu zion biriketako edemaren ondorioz.

Epaiketa 1995eko otsailaren 9an egin zen, eta sententzia 23an jakinarazi zuen Arabako Probintzia Auzitegiak: "Zorigaitoko biktima -Juan Calvo- hiltzea eragin zuten gertakarien erruduntasuna Poliziako agenteena da, argi eta garbi, gasaren ondorio kaltegarrien jakitun, atxilotua ziegetatik ateratzea eragotzi baitzuten".

ARGIA saiatu da sententzia osoa eskuratzeko, baina ez du lortu momentuz: fami-

liaren abokatu Txema Monterok eta TATEko Begoña de la Cal abokatuak ez dute jada gordea, epaitegian eskaera egina dugu (sententzia publikoa baita) baina informazio hau idazteko orduan ez digute helarazi. Edonola, orduko prentsan zein sarean bertan irakurri daitekeenez, epaimahaiak urtebeteko espetxe zigorrera kondenatu zituen sei ertzain, zuhurtziagabekeria ausartegiaren delituagatik: Juan Antonio Arenaza, Aitor Zubiagirre Fernández de Gamarra, Francisco Javier Muñoz Miranda, Roberto Martínez de Arenaza García de Albeniz eta Rogelio González González. Sei urteko espetxealdia ezarri zion egun hartan agintean zegoen ertzain buru José Ignacio Couceiro Cuadrari, aurreko delituz gain arduragabekeria profesionalaren larrigarria ezarrita. Gasa bota izana aitortu zuen ertzain bakarrak (espraia "bi aldiz" sakatuta, segundo batez bakoitzean), Cristina Martín Canabalek, hamar eguneko atzipenaldi edo arresto txikiko zigorra jaso zuen zuhurtziagakeriagatik, ez zuelako parte hartu Calvo gasaren eraginpean kalabojoetan itxita mantentzeko ahaleginean, tribunalaren arabera.

TATEk eta Txema Montero abokatuak positiboki baloratu zuten ertzainei ezarritako espetxe zigorra, baina negatiboki Calvoren gorpuak zituen zauri eta kolpe arrasto ugariak falta bezala zigortzea, eta ez delitu gisa.



## INPUNITATEA

“Gutziz dementziala” izan zen ertzainei ezarritako zigorra Segur-tasun Saileko kontseilariorde Martiarenarentzat, egunean bertan adierazi zuenez. Atutzak tonua apaldu zuen ordu batzuetara: sailak epaitegien erabakiak “errespetatzen” zituen, baina sententzia “zorrotzegia” zen. Ertzaintzako sindikatuei dagokienez: “Lehenbailehen” indultua eskaera egitea eskatu zion Segur-tasun Sailari CCOOk; “Ezarritako zigorrak benetan neurrigabeak iruditzen zaizkigu”, adierazi zuen ELAk; zigorra “bidegabe” jo eta zigortuei babesa adierazi zien Ernek. Zigortutako ertzainek sententzia errekurritu zuten.

1996ko urtarrilean Espainiako Epaitegi Gorenak ertzain buruari zigorra beheratu zion sei urtetik urte bakarrera, eta gainontzeko zigorrak berretsi zituen. Finean, polizia guztiek beren lanpostuetan jarraitu zuten, ez zuen inork espeterik zapaldu, ez dimisiorik aurkeztu. Juan Calvoren familiak ARGIAri adierazi dionez, ez zuten jaso Ertzaintzaren aldetik inongo azalpen, erantzukizun edo damu hitzik.

## ARGIA-REN INFORMAZIO BERRIAK

Santiago ospitaleko larrialdietan Calvo biziberritzen saiatu zen medikuetako bat inpaktatutik geratu zen bizitakoarekin. Etxera heltzean, gogoratzen zuen guztia idatzi zuen. 30 urtez gordea izan duen mediku txosten hori publikatzen du ARGIAK erreportaje honetan, baita gorpua-ren autopsia ofiziala ere, audio formatuan.

Orduan erizain laguntzaile zen Patxi Bezaresekin mintzatu da ARGIA. Bezaresek zenbait zauri arin sendatu zizkion Calvori ertzainek lehenbiziko z eraman zutenean larrialdietara, iluntzean, atxilotu berritan. Hurrengo goizean lanera bueltatzean hila zuten Calvo. Gorpua ikusi zuen, eta dioenez hain zegoen “masakratuta” ezagutu ere ez zuela egin. Bezaresek kontatu du, besteak beste, Calvoren kontaktu zuzena izan zuten medikuetako batek behintzat (etxera heltzean txostena idatzi eta gorde zuen berak) Ertzaintzaren jarraipenak eta mehatxuak pairatu zituela hurrengo hilabeteetan.

Horrez gain, krimen horren leku-ko zuzen bat dago (inputatutako ertzainez gain). Egun hartan Calvoren pareko ziegan zegoen atxilo M.U.M. delakoa. Lehenik Polizia aurreko deklarazioan ertzainek bertsioa berretsi zuen; baina epaiketean bere abokatuak ziurtatu zuen lekukoak kontatua ziola Calvo “txerritxo baten gisan” lotu eta “errukirik gabe kolpatu” zutela ertzainek. ARGIAK lekukoa topatu eta berarekin hitzordua egin du. Ez du informaziorik eman kalabozoetan ikusi edo entzun zuenaren inguruan, baina adierazi du “gauzak argitu gabe” geratu zirela.

Azkenik, Calvo hil eta ordu gutxira berarekin kontaktu zuzena izan zuten ertzainek komisarian bertan egin zituzten deklarazioak eskuratu ditu ARGIAK. Deklarazioen azterketaren emaitza argia da: ertzainek kontakizunak eta Calvoren gorpua-ren egoera ez dira bateragarriak. Segur-tasun Sailak ertzainak eta bere bertsioa babestu zituen erabat.

## HAMAIKA GALDERA, ZIURTASUN BAKARRA

Zenbait kazetarik epaiketaren jarraipena egin zuten bertatik bertara. “Gertakarien gainean dirauten itzal-gune nabarmenak dira kasu honetan aipagarriena”, idatzi zuen epaiketara amaitzean Iñaki Iriondo *Egineko* kazetariak. “Ez dirudi gertatutakoa argitzen lagundu duenik Juan Calvoren heriotzaren ikerketa agintzeak akusatuen polizia gorputz bereko kideei”, *El Correo*ko A. Morazak.

Nola eta zergatik hil zuten Juan Calvo Ertzaintzaren komisarian? 30 urteren ostean galderak gaurkototasun bera mantentzen du. Soilik bertan egon ziren ertzainek argitu dezakete, eta akaso Ertzaintzaren orduko arduradunek ere bai. Bitartean, garaian eman ziren zenbait informazio ezeztatu, eman ziren batzuetan sakondu, eta datu berriak plazaratuko ditugu erreportaje honetan. Hamaiika galdera uzten ditu airean, eta ziurtasun bakarra: egia ofiziala ez da nahikoa Juan Calvoren heriotza eta bere ingurumariak ulertzeko.

Hurrengo orrietan, aipatu dokumentu eta lekukotasun berriak aztertuko ditugu banan-banan sa-kontasun handiagoz.

# ETAren hipotesia

**B**ilbon taxi bat lapurtu zuen herri-tarra ETako kidea izan zitekeela pentsatu zuen Ertzaintzak denbora batez. Hilabeteotan ideia bera adierazi diote hiru pertsonak ARGIAri. “Guri heldu zitzaiguna da ETakidea zela taxi bat lapurtu zuen eta atxilo zekarten herritarra”, dio ospitalean Calvo artatu zuen Patxi Bezares. Calvoren senideen abokatu Txema Monterok ARGIAri esan dio behintzat Calvo atxilotu arte hori izan zela Ertzaintzaren ustea, “zalantzarik gabe”. Ertzaintzak Calvo ETakidetzat jo eta horrek atxilotuari emaniko tratua baldintzatu izanaren susmoa izan zuten Torturaren Aurkako Taldean, orduan taldeko kide eta egun EH Bilduko legebiltzarkidea den Julen Arzuagaren esanetan. Epaiketean bertan, hipotesi horrengatik galdetu zioten atxiloketa burutu zuten ertzainei TATEko abokatuak zein Monterok: Segur-tasun Sailak abiatutako operazioaren tamaina ikusita (helikoptero bat, besteak beste) hori pentsatu zutela deklaratu zuten poliziek, eta batek inpresio hori mantendu zuela hurrengo egunera arte (Calvo jada hila, hortaz).

1993 urterako, tortura edo tratu txarrengatik Ertzaintzaren aurkako dozenaka salaketa aurkeztuta ziren. Horietako bik bidea egin zuten epaitegietan: Andoni Murelagarenak 1990ean, eta Raul Ibañezenak, 1991n. 24 urte pasako ziren Jaurlearitzak Ertzaintzaren 311 tortura kasu onartu arte.

Ertzaintzak ETAren susmoa izan zuela nahiko segurutzat hartu daiteke, aintzat hartuta testigantzen kopurua zein aniztasuna edo Calvo jarraitzeko helikoptero bat erabili izana duela 30 urte. Kontrara, Segur-tasun Sailak inoiz ez zuen horrekin lotutako adierazpenik egin; ematen du (ezin erabat ziur egon) Ertzaintzaren terrorismoaren aurkako taldeek ez zutela parte hartzerik izan atxiloketan, ez ondoren komisarian; edo, ARGIAK eskatuta autopsia aztertu duen forentseak adierazi moduan, Calvoren gorpua zituena biolentzia arrasto nabarmenek ez dute “arrazoi politikoengatik” torturatutakoek izan ohi dituzten gisakoekin bat egiten.

ETAren hipotesiarekin egin zuten lan Ertzaintzak Calvo kasuan? Baldintzatu zuen horrek atxiloketa, atxilotuari emaniko tratua edota atxilotuak horren aurrean izandako erreakzioa? Finean, izan zuten inongo zerikusirik hipotesi horrek Calvoren heriotza tragikoan? Horiek ere, ertzainek eta bere arduradunek soilik erantzun ditzaketen galderak dira.



### 30 URTEZ ISILDUA, ARGITARA


1993ko abuztuaren 20an, goizaldeko 5:00ak aldera, Santiago Ospitaleko larrialdietako osasun langileen talde bat Juan Calvo biziberritzen saiatu zen, alferrik: Arkauteko komisariatik hilotz irten zen bilbotarra. Medikuetako batek egindakoa aurpegiratu zien haserre poliziei, suminduta. Etxera heltzean, gogoratzen zuen guztia jaso zuen bi orriko idatzi batean, gertatua ahaztu ez zedin. Gero, ondorioen beldur, ezkutuan gorde zuen. ARGIAren eskuetan jarri du orain.

Medikuak emandako txostena eta ospitaleko beste langile batek eskainitako elkarrizketa, zinez gordinak biak, motore izan dira informazio berria bilatu eta Juan Calvo kasuan argi pixka bat egiten saiatzeko. Lortu ditugun material eta testigantza berrien artean dago forentseak Calvoren gorpuari eginiko autopsia ofiziala.

Medikuaren txostenak akatsen batzuk zituen diagnostikoan, baina zuzen jaso zituen punturik esanguratsuenak: Calvoren gorpuak gasa botatzen zuela medikuei "eztula, narritadura-konjuntibitisa, zorabioak eta disnea" eraginez; kolpez, hematomaz eta zauriz lepo zegoela; lotuta egon izanaren arrastoak zituela eskumuturretan... Baina idatziak bestelako datu deigarriak ere ematen du.

Txosten horri esker dakigu medikuak ertzainei eskatu zuela Guardiako Epailea eta forentsea deitzeko ospitalera bertaratu zitezen, begien aurrean zuenaren larritasunaz oharturik. Baina, beti ere medikuak txostenean jaso zuenaren arabera, "inork ez zuenez seinalerik ematen", 092ra deitu zuen bere ekimenez, eta Udaltzaingoaren patruila bat agertzea lortu zuen. Agertu ziren epailea eta forentsea azkenik, eta medikuak aipatu zionean ertzainek ez ziotela deitu, honek erantzun zion bi dei jaso zituela: lehena, heriotza "natural" baten berri ematen; bigarrena, bere presentzia galdeginez. Nork egin zuen lehenbiziko deia Calvoren heriotza "natural" gisa deskribatuz? Ertzaintza ez den beste inork egin zezakeen?

Lan esperientzia luzea duen forentse profesional bati eskatu dio ARGIAk 30 urtez ezkutuan egon den medikuaren txostena eta autopsia ofiziala baloratzeko. Txostenaz nabarmendu du ez dela ohikoa medikuek heriotza baten aurrean tamainako jarrera "proaktiboa" izatea (epailea eta forentsea bertaratu arazteaz gain, Calvoren ahotik irteten zen likidoaren laginak hartu zituzten analisirako), eta "positiboa" dela adierazi du.




**ITURRIA:** Gasteizko Auzitegiko Institutu Anatomikoa. Mercedes Sines Lafuente forentsearen autopsia.

**MARRAZKI ANATOMIKOAK:** Istanbulgo Protokoloa.

**ATZEKO DOKUMENTUA:** Medikuek 30 urtez gordeta izan duen txostena.

**INFOGRAFIA:** ARGIA



### HERIOTZA BATEN MAPA

ARGIAren lantaldeak osatu dituen marrazki anatomikoak eta bideoa aztertzea da modurik egokiena ulertzeko Gasteizko Auzitegiko Institutu Anatomikoko Mercedes Sines Lafuente forentsearen autopsiaren edukia. Edonola dela, Calvoren gorpuak zituen: buruan bi ebaki, bat garezurreraino zabal-tzen dena eta garunean odol-isuri txikia sortu zuena; barriletako "hematoma handiak"; biriketako edema akutua; eskumuturretan lotuta egon izanaren arrastoak; eta gorputz osoan gutxienez 47 kolpe (borrakadak, ustez), heme-retzi hematoma eta hamasei azaleko urradura, tamaina eta larritasun ezberdinetakoak.

Calvoren heriotza "biolentoa" izan zela dio autopsiak, kausa aipatu biriketako edema izan zela, eta Ertzaintzak erabiltzen zuen CS gasak sortua. Forentsearen arabera, ikuspegi "hertsiki mediku batetik" ezinezkoa da zehaztasunez ezartzea heriotza izan ote zen "istripu" baten ondorio, "suizida", edo "hiltzailea".

ARGIAk kontsultatu duen forentsearen esanetan, Sines forentseak egin zuen autopsia "kalitate onekoa" da: azterketa xehetasun handikoa izateaz gain, lagin ugari hartzen dira laborategietan analisi egiteko. Kolpeek oro har ez dute lesio garrantzitsurik sortzen, buruko atzeko ebakidura kolpe "esanguratsu" baten ondorioa behar du izan; barriletako hematoma ziurrenik kolpe bidez sortu ziren. Hiltzeko moduari dagokionez, medikuntza forentseak ez du baztertzeko zenbait alditan dokumentatu den konbinazio bat gertatu izana, hiru faktorek: gasa + polizien immobilizazioa + Calvoren "eldarnio asaldatua".

Erabateko desadostasuna du, azkenik, heriotzaren etiologiaz autopsiak egiten duen interpretazio irekiaz: bere esanetan, "zalantzarik gabe" heriotzaren kausa ez zen izan "istripua", ezta "suizida" ere; Calvoren heriotza "hirugarren pertsonen esku hartzearen ondorioa" da, hortaz, "hiltzailea". Komisarian hil zutela Calvo, alegia.



“ ”

# Gorpu hura masakratuta zegoen

PATXI BEZARES

Juan Calvo artatu zuen Santiago ospitaleko langilea

1993ko abuztuaren 19ko arratsaldean Ertzaintzak Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuen Juan Calvo, atxilotze unean eginiko zauriak artatzeko. Patxi Bezares Diaz de Tejada erizain laguntzaileak (egun zeladorea da) sendatu zizkion zauri arinak. Bera izan zen Calvo bizirik ikusi zuen azken pertsonetako bat. Hurrengo egunean lanera bueltatzean lankideek kontatu zioten Calvo goizaldean eraman zuela berriz Ertzaintzak,

hila eta biolentzia arrasto nabarmenekin gorputz osoan. Gorputegira joan zen eta han ikusi zuenak inpaktu handia sortu zion, Calvori alferrikako biziberritze ariketak egin zizkieten medikuei bezala. 30 urte eta gero, estreinakoz kontatu du egun hartan eta hurrengo hilabeteetan berak eta Calvorekin kontaktua izan zuten beste osasun profesional batzuek ikusi eta pairatu zituztenak. Tartean, Poliziaren jazarpena.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA  DOS POR DOS

## 1992an hasi zinen Gasteizko Santiago ospitalean lanean, eta Juan Calvo 1993an artatu zenuen larrialdietan.

Denbora gutxi neraman lanean. Ostegun arratsaldea zela uste dut, abisua jaso genuen, Ertzaintzak atxilotu bat ekarriko zuela. Ez dakit nola, baina guri heldu zitzaiguna zen taxi bat lapurtu zuen pertsona bat zela, Langraitz (Araba) herrian atxilotu zutela, eta antza ETAkidea zela. Gu horretan guztian ez gara sartzen, guk gure lana egiten dugu eta listo.

Ekarri zuten eskuburdinak bizkarraldean jarrita, zauri batzuk sendatzeko.

Praka marroi batzuk zituen atzekoz aurrera jarrita, zapatak lokarririk gabe, eta biluzik zegoen gerritik gora. Sorbaldan zenbait zauri arin zituen, eta bizkarrean beste batzuk hartxintzar pixka batekin, ziurrenik atxiloketa unean lurrean egindakoak. Bularrean, aurrealdean, bi borrakadaren arrastoak zituen, nahiko potoloak, eta bizkarrean hiru, hori ondo gogoratzen dut. Medikuek niri eskatu zidan zauriak sendatzeko.

## Artatzea arazorik gabe joan zen?

Ertzainari eskatu nion mesedez esku-

burdinak askatzeko, besoetan bazuen zauriren bat eta askatu ezean ezinezkoa zela ondo sendatzea. Ertzainak modu txarrean erantzun zidan, haserre antzean, ea ezinbestekoa zen, eta baietz erantzun nion. Modu zakarrean hasi zen askatzen, Calvo kexatu egin zen mina egiten ziola esanez, eta zuzendu nintzaion ertzainari, “mesedez, kontuz ibili, apurtuta izan dezake ukondoa edo beste zer edo zer”. Aurpegi txarra jarri zidan. “Hau itxurak egiten dabil, ez da horrenbesterako”, horrelakoak bota zituen, baina askatu zuen. Sendatu niz-



kion zauriak, amaitu nuenean Calvo ur baso bat eskatu zidan, eman nion, eta eskertu egin zidan. Eskuburdinak jarri zizkieten berriro, eta eraman egin zuten. Txanda amaitu nuenean, etxera joan nintzen.

**Noiz bueltatu zinen berriz ere larrialdietara lanera?**

Hurrengo egunean goizeko txandan sartu nintzen lanera, 8:00etan. Aldagelan

“ ”

30 urtetan denetarik ikusi dut, baina modu hartan jipoitutako pertsonarik ez dut sekula ikusi

gaueko lankideekin gurutzatu nintzen, eta batek galdetu zidan, "aizu Patxi, atzo ez al zenuen zuk sendatu Juan Calvo izenekoa bat, Ertzaintzak ekarri zuena?"; "bai, zergatik diozu?"; "hilda ekarri dutelako". Seko harrituta geratu nintzen. Kontatu zidan gutxi gorabehera gertatutakoa: anbulantzian ekarri zutela, ertzain piloa agertu zela larrialdietan... ikustekoa izan zela. Lankide horrek bere begiz ikusi zuen Calvo, eta esan zidan bere ustetan zer edo zer oso larria gertatu zela komisarian.

Ordu gutxi batzuk lehenago bizirik ikusi nuen tipoa, eta gorpua ikusteko beharra sentitu nuen. Saiatu nintzen gorputegira sartzen, baina Ertzaintzak zainduta zegoen eta ez zuten uzten pasatzen. Baina gero lanagatik sartu behar izan nuen, eta Calvoren gorpua ikusteko aprobetxatu nuen.

**Zer ikusi zenuen?**

Ikusi nuena... hura izan zen... ez nuen tipoa ezagutu. Bizirik ikusi nuenean bost borrakada bazituen, gorpu hura masakratuta zegoen. Ubeldura piloa zeukan gorputz osoan, iruditu zitzaidan borra baina finagoa den zerbaitekin eginak zirela. Nabari zen eskuak lotuta izan zituela, kristoren kanala baitzuen esku-muturretan. Kalamuzko soka batekin lotu zuten, zuntz batzuk zeuden oraindik agerian. Belaunetan erredura antzeko batzuk ageri ziren. Barrabilak txikituta zituen, handituta, more, ez dakit nola adierazi; ziurrenik baten batek potroetatik eskuekin heldu eta direnak eta ez direnak egingo zizkion. Irudi oso gogorra zen.

Begiak erabat erreta zituen ere, ziurrenik gasagatik.

**Gas usaina zuen?**

Usain oso arraroa zuen, gasarena edo beste zerbaitena.

**Calvo hilotz eraman zutenean lanean ari ziren lankideekin hitz egin zenuen?**

Batzuekin bai, batez ere medikuetako batekin, eta zehatzago kontatu zidaten gertatutakoa. Calvo erabat biluzik ekarri zuten anbulantzian, masaje eginez suspertzen saiatzen ziren bitartean. Anbulantziako sanitarioek gasaren aurkako maskara jarri behar izan zuten; masajea emateko bularrean presio egitean gasaren kea ateratzen omen zen ahotik eta begiak asko narritatu zitzaizkien, baten bat larrialdietan bertan artatu behar izan zuten.



Larrialdietan ohiko protokoloa aktibatuta zuten suspertzen saiatzeko, baina ez zuten izan ezer egiterik, hilda heldu zelako. Larrialdietan ere, masajearekin ura eta gasa ateratzen omen zitzaizkion Calvori ahotik. Hori izan daiteke biriketako edema bategatik, adibidez, baina ziurra dena da ez dela istripuz gertatzen. Pentsatzen dut Juan Calvo torturatu egin zutela, bestela ez dago ulertzerik.

**Elkarrizketa lotzeko hitz egin genuenean aipatu zenidan mediku batek liskarra izan zuela Ertzaintzarekin [Elkarrizketan presentzia handia du mediku horrek: medikuak ez dio elkarrizketarik eman nahi izan ARGIAri arrazoi pertsonalak tarteko, baina hemen ematen diren informazio guztiak irakurri eta berretsi dizkigu]**

Behin Calvoren bizia salbatzeko ezer egiterik ez zegoela ikusita, saiatzeari utzi zion larrialdietako taldeak. Medikuetako bat erreenimazioa gelatik irten zen, eta ertzain batek galdetu zion ea zer moduz zegoen atxilotua. Medikua erantzun zion, suminduta, "Konturatzen zarete zer egin duzuen?! Ez duzue lotsarik!". Ertzainak erantzun zion, "Ez iraindu, eta kontuz esaten duzunarekin". Medikua are gehiago sutu zen, liskarra piztu zen eta azkenean lankideek beste gelara eraman zuten. Ertzainek hanka egin zuten. Medikua berak kontatuta dakit hori guztia.

**Artatu zenuenean, nolako jarrera izan zuen Calvok? Zer aldarte zuen?**

Oso lasaia, normala. Tarteka eskatzen nion hau egiteko, edo horrela mugitzeko, eta egiten zuen. Amaitzean eskertu zidan artatu izana. Jatorra iruditu zitzaidan.

**Segurtasun Sailak adierazi zuen Calvok jarrera biolentoa izan zuela atxilotzean eta ondoren komisarian, zentzurik gabeko komentarioak egiten zituela... Koadratzen dizu ikusi zenuenak horrekin?**

Ez. Larrialdietara norbait datorrenean, normalean antzematen dugu buruko gaixotasunen bat duen, zentzumen hori garatzen dugu. Calvori ez nion horrelako ezer antzeman. Oso isilik egon zen, baina lasai eta lagunkoi, adibidez, esan, "barkatu, agian min pixka bat egingo dizut orain...", eta erantzun zidan, "Zu lasai, egin egin behar duzuna". Ura eman

nionean eskertu egin zidan... ez nuen horrelako ezer nabaritu.

**Harrigarria da horrenbeste xehetasunekin gogoratzea gertatutakoa, 30 urteren ondoren.**

Oso zaila da horrelako zerbait ahaztea, oso inpaktantea da. 30 urtetan denetarik ikusi dut, hildakoak, suizidioak, zauri larriak... Baina modu hartan jipoitutako pertsonarik ez dut sekula ikusi, eta ikusi ditut pertsona jipoituak 30 urteotan.

“ ”

Ertzaintzaren jarraipenak izan zituzten Calvorekin kontaktu zuzena izan zuten osasun langileetako batzuek

**Ertzainekin liskarra izan zuen medikuak txostena idatzi zuen lanetik irten eta etxera heltzean. 30 urtez izan du gordeta orain ARGIAri ematea erabaki duen arte, publiko egin dadin. Ezagutzen duzu txosten horren historia?**

Bai. Lanetik atera, etxera heldu eta gogoratzen zuen guztia idatzi zuen. Garai hartan ez zegoen ordenagailurik, baina idazteko makina elektronikoa bat zeukan. Ezer ez ahazteko idatzi zuen. "Geratu naiz hain inpresionatuta", azaldu zidan, "segituan idatzi beharra nuela detailerik ez galtzeko". Gogoan dut esan zidala, "Tipo hori musu-truk garbitu dute, horrela: zakur baten pare hil da".

**Ospitaleko zuzendaritzak zer jarrera izan zuen?**

Egun berean ospitaleko zuzendaritzatik komunikatua jaso genuen langileok: ezin zela ezer ere esan gaiari buruz, azalpen guztiak gerenteak emango zituela. Hau da, kontuz hitz egiten denarekin. Hori ostiralean, larunbaterako ospitale sarreran kazetariak zeuden.

Ondoren paper bat ekarri zuten larrialdi zerbitzuetara, arduradunarentzako, esanez ikerketa sekretupe

judizialean zegoela eta espresuki debekatuta genuela inongo informaziorik ematea [Instrukzio epaileak kasua sekretupean jarri zuen abuztuaren 30ean eta oharra bidali zion propio ospitaleko zuzendariari filtrazioei amaiera jar ziezaien].

**Baina hainbat informazio "sekreto" argitaratu zuten halere komunikabideek, batzuk bertsio ofiziala berresten zuten, beste batzuek kontrakoa. Egin egunkariak eman zuten informazio gehien Calvoren gorpuaren egoeraz, ospitaleko iturriak aipatuz.**

Bai, irakurri nituen, ez dakit nork egin zuen. Gero jakin genuen Segurtasun Sailaren informazioaren arabera gaixo psikiatrikoa zela, nik, badiotsut, ez nion traza hori hartu, baina izan daiteke, jakina. Sailak esan zuen ere oso biolentoa zela, hori inondik inora.

**Barne Sailak emandako azalpenak irakurri zenituen?**

Bai, lehen komunikatua jarraian atera zuten. Barne Sailak esan zuen atxilotua bere burua lesionatzen hasi eta ertzainek esku hartu behar izan zutela. Uste dut orduan ertzainen burua [Juan Mari] Atutxa zela. Gorpuaren egoerak ez zuen bat egiten bertsio horrekin.

Baina guk ez genuen ulertzen beste gauza bat: ostegunean abisua jaso genuenean atxilotu bat zekartela, heldu zitzaigun Langraitzen atxilotutakoa ETAKidea zela, komando batekoa. Orduan, susmoa genuen beste zer edo zer bazegoela hor, baina Barne Sailak ez zuen horrelako ezer aipatzen.

**Lankideen artean zein izan zen giroa egun haietan?**

Han izan ginenon artean, komentarioak ziren: "Joder, garbitu egin dute, makilakadaka, ezin du izan...". Harridura, eta amorru handia. Osasun arloko langile bezala, ez dakit nola esan, hori ezin da onartu. Eta zoritxarrez, jarrera salagarriak, negargarriak Ertzaintzaren aldetik, behin baino gehiagotan ikusi ditut. Langile bezala ezin dugu hori onartu. Ezin dugu jakin ehuneko ehuneko komisarian zer egin duten, baina susmatu... Izan ere, ekartzen dutenean norbait, eta ikusten duzunean txikitu egin dutela... Amorrua eta asaldura izan ziren nagusi lehenbiziko egunetan, baina aste batean dena ahaztu zen, gutxi batzuen aldetik salbu.



### **Hurrengo aste eta hilabeteetan dena ahazten eta lasaitzen joan zen?**

Ertzaintzaren jarraipenak izan zituzten Calvorekin kontaktu zuzena izan zuten osasun langileetako batzuek. Nik nire aldetik ez nuen ezer nabaritu. Txostena idatzi zuen mediku horrek kontatu zidan berak ia urtebetez izan zituela atzean, kalean, kafetegian... kontrolatuz nora zihoan, norekin hitz egiten zuen. Kontatu zidan behin kalean geratu ere egin zutela, kalez jantzitako bi pertsona ziren baina argi zuen ertzainak zirela.

### **Larrialdietan egon ziren ertzain berak izan ziren kalean geratu zutenak?**

Ez, ezezagunak. Beste lankide batek esan zidan berak igartzen zuela jarraitu egiten ziotela. Esan nion posible zela. Ni gara hartan LAB sindikatuko afiliatua nintzen, oraindik ez nintzen delegatua, eta sindikatuan ere nabaritzen genituen gauza arraroak, ospitale inguruan zenbait pertsona errepikatzen zirela... Hori lehen egunetan, kazetariak ere bazeudenean, baina mediku horren kasuan urtebetez.

### **Eta nola bizi izan zuen medikuak egoera hori guztia?**

Mediku horrek oso txarto pasatu du. Pentsa, 30 urtez izan du gordeta txostena. Beldurragatik jakina, ahoa zabalduz gero... Nire kasua ezberdina da, ni sanitario arrunt bat naizelako eta ez besterik, baina mediku baten kasuan, beraiek nahi badute ez duzu berriz ere lan egingo sekula santan, inon. Ikusi dugu beste kontu batzuetan nola jokatzeko duen EAJK. Osakidetzako Lan Eskaintza Publikoen ustelkeria salatu zuten Roberto Sánchez eta gainontzekoak erabat zapaldu eta baztertu dituzte, eta listo. Orduan, jende horrek helarazten dizunean kontuz ibiltzeko, pasatzen bazara...

### **Beldurra aipatu duzu. 30 urteren ostean, zergatik ematen ari zara elkarrizketa hau?**

Zergatik? Sentitzen dut zorretan nagoela justiziarekin, egiarekin, eta, batez ere, Juan Calvorekin.

### **Epaiketa izan zen Calvoren heriotzagatik, sententzia 1995ean ezagutu zen. Sei ertzain**

### **kondenatu zituzten ausarkeriazko zuhurtziagabekeriagatik: nagusia sei urteko espetxealdira, beste bostak urte batera. Calvori gasa bota izana aitortu zuen ertzain bakarrari hamar eguneko arrestoa zioten zuhurtziagabekeria sinpleagatik. Nola jaso zenuen berria?**

Prentsan irakurtzean kristoren amorrua sentitu genuen, ikusi genuelako berdinean zuela denak, inpunitatea erabatekoa zela, ez dago eskubiderik. Lanean komentatu genuen: "Gogoratzen duzue tipo hura? bada, begira", "Joder, dohainik irten zaie".

### **Espainiako Epaitegi Gorenak sei urtetik bakarrera jaitsi zion zigorra polizia buruari 1996an. Hasierako sententziarekin preso sartu beharko zukeen polizia bakarra ere ez zuten sartu espetxean, hortaz.**

Hori ez nekien, joder.

### **Ez zuten inor Ertzaintzatik kanporatu. Ertzain horiek, orduan zuten adinaren arabera, lanean egon daitezke gaur egun.**

Bai, edo jubilatuta lasai asko. Penagarria.



## CALVOREN HERIOTZAREN LEKUKOA

# “Gauzak argitu gabe geratu ziren”

Calvo Ertzaintzaren Arkauteko komisarian hil zuten gauean beste atxilotu bat zegoen kalabozoetako ziegetan: M.U.M, kontrabando delitua egotzita preso zuten gizona. Calvo hil eta bost ordura egin zuen deklarazioan ertzainen bertsioa berretsi zuen oro har, eta hurrengo egunean utzi zuten libre. Urte eta erdi beranduago,

ordea, epaiketan, bere abokatuak adierazi zuen M.U-k Calvo ikusi zuela “txerritxo baten gisan lotuta” eta ertzainek “errukirik gabe kolpatu zutela borrekin”. Gertaeretatik 30 urtera ARGIA lekukoarekin harremanetan jarri da. Ez du azaldu nahi izan gau hartan ikusi zuena, baina adierazi du “gauzak argitu gabe” geratu zirela.

## ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

**A**buztuaren 20ko 5:00ak inguruan hil zen Juan Calvo Ertzaintzaren komisarian, eta M.U.k 10:30etan deklaratu zuen Ertzaintzaren aurrean. Oro har, ertzainek eta Segurtasun Sailak Calvoren heriotzaz eman zuten bertsioa berretsi zuen M.U-k bere lekukotzarekin: goizeko 4:30ak aldera ertzainei eraso egin ziela Calvok, bere heriotzarekin amaituko zen borrokari hasiera emanda.

### KONTRABANDISTAREN ETA ERTZAINEN ARTEKO HITZORDUA

Calvo hil eta egun batzuetara Ertzaintzako agente batek diligentzia bat zuzendu zion Calvoren heriotzaz arduratzen zen instrukzio epaileari, “Raul Martin Segarra abokatuarekin izandako gorabeheraren berri emateko”. AR-

GIAK dokumentua eskuratu du.

Diligentziak 02044 eta 02039 ertzainen bertsioa jasotzen du soilik. Horren arabera, Calvo hil eta hiru egunera M.U.-k Arkautera deitu zuen, eta aipatu bi agenteekin hitzordua egin zuen Gasteizko Sarria jatetxean. Jatetxera heltzean, ertzainek “harrituta” ikusi zuten lekukoarekin batera Raúl Martin Segarra abokatua zegoela, beren hitzetan “tabako kontrabandisten abokatua”. Abokatuak argitu zien bere presentziaren motiboa: bere defendatuak kontaktu zizkion “hainbat gauza hobe direnak publiko ez egitea”, eta ertzainak lagundu nahi zituztenez, jakin nahi zuen ea “eskutik joan” zitezkeen. Ertzainek erantzun zioten beren nahia zela “dena argitzea egiarekin”, eta hortaz ez zutela inorekin eskutik joan beharrik.

Abokatuak Zeukan informazioaren pista bakarra eman zien ertzainei: “M.U.-k kontaktu dezake, adibidez, Calvo liskarra hasi aurretik zegoela lotuta”. Ertzainek hori gezurra zela erantzun zioten. Ordea, Calvoren gorpuak esku-muturretan zituen markak ertzainen kontakizuna zalantzan jartzen duen elementu nagusienetakoa dira *Ertzainak eta Segurtasun Saila: gezurrak, hutsuneak eta kontraesanak* artikuluan aztertu dugun moduan.

### “TXERRITXO BATEN GISAN LOTUTA”

Urte eta erdi beranduago, epaiketan, M.U-k berretsi egin zuen aurreko deklarazioa, ertzainen kontakizunarekin bat zetorrena. Deklaratu zuten ere lekukoaren abokatu Martin Segarrak, eta





## ERTZAINAK ETA SEGURTASUN SAILA

## Gezurrak, hutsuneak eta kontraesanak

Calvo hil eta ordu batzuetara, abuztuaren 20ko goizean, heriotzaren gauean berarekin kontaktua izan zuten zortzi ertzainek deklaratu zuten gertatutakoaz, komisarian bertan. Bigarren aldiz hartu zieten deklarazioa abuztuaren 23 eta 24 artean. ARGIAk deklarazio horiek eskuratu ditu, eta Calvoren autopsia forentsearekin alderatu ditu. Ondorioa argia da: ertzainen kontakizunak bateraezinak dira Calvoren gorpuak zituen biolentzia eta gas arrastoekin. Ondorio berera heldu da ARGIAk eskatuta dokumentuak aztertu dituen forentsea ere. Segurtasun Sailaren bertsio ofizialak ertzain horien kontakizuna bere egin zuten, eta ertzainek deklaratu ez zuten daturen bat ere eman zuten.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

**4:00**ak aldera hasi zen Calvoren heriotza ekarriko zuten liskarra. Honakoa litzateke kontakizun orokorra zortzi ertzainen deklarazioa aintzat hartuta: Calvok komunera ateratzea eskatu zuten; komunean ukabilkada eman zion ondoan zituen hiru ertzainetako bati; bi ertzain bera menderatzen saiatu eta ezin zutela ikusita, hirugarrenak gasa bota zion Calvori; ertzainak kalabozetatik irten ziren gasaren eraginari ezin eutsirik, ateak itxi eta Calvo barruan utzi zuten; zaratetik ohartarazita ertzain gehiago heldu ziren, baina jarraian alde egiten zuten gasagatik; Calvori gasak ez zion eragiten, ateetako bat txikitu eta kalabozetatik irten zen; ertzainek ihes egin zuten

kalera ematen zuten hurrengo ateraino eta trunkatu egin zuten; hura ere txikitu eta kalera irten zen Calvo; zortzi ertzainen artean ezin izan zuten menderatu hainbat minututan, baina azkenean lortu eta esku-hankak lotu zizkioten; Calvo lasaitu egin zen, segundo gutxira konortea galdu eta ohartu ziren pultsurik ez zuela; anbulantziari deitu eta Santiago ospitaleko larrialdietara eraman zuten.

Kontraesan ugari ditu kontakizun horrek, ordea. Jarraian nagusiak aztertuko ditugu, txikiagoak alde batera utzita.

**GAS HILTZAILEA**

Autopsiaren arabera, Ertzaintzaren gas negar-eragileak sortu zion biriketako

edemak hil zuen Calvo. Aldiz, zortzi ertzainetatik bakarrak –9469 agenteak– onartu zuten gasa bota izana, “bi aldiz” eta bakoitzean espraia “segundo batez” saka-tuta. Nekez hilko du gas kantitate horrek pertsona bat. Bota zuten gasa beste inork?

Bi ertzainen arabera, Calvok berak 9469 agentearen espraia eskuratu eta bota zuten. 10545 agenteak deklaratu zuten Calvok berari bota ziola gasa besoan: nabaritu zuten baina ez ikusi, kalabozetan ez omen zegoelako argirik; gainontzeko ertzainek deklaratu zuten, ordea, kalabozetan argia zegoela. 2139 agenteak ere deklaratu zuten Calvok gasa bota zuela: ikusi ez baina “entzun” zuten, atearen bestaldekik. Gainontzeko sei ertzainek deklaratu zuten, aldiz, ez zutela ikusi Calvo espraia eskuan, ez gasa botatzen. Ezta airearen zirriritutik eta ateetako baten behatxulotik Calvoren mugimenduak jarraitu zituzten 1165 eta 1289 agenteek ere.

Beraz, 9469 agenteaz gain, bota ote zuten gasa beste ertzainen batek? Ez dago jakiterik: kasuaren ikerketaz arduratu ziren ertzainek ez zituzten ikertu gainontzeko zazpi agenteen espraia, erabiliak izan ziren argitzeko. Hori onartu zuten epaiketan, eta familiaren abokatu Txema Monterok zein TATEk ikerketaren “hutsune nabarmenak” kritikatu zituzten.

Ertzain denek deklaratu zuten segundo gutxira irten behar izan zutela liskarraren eremutik gasari ezin eutsirik, kideak arriskuan utzita ere, eta, aldiz, Calvok ez zuela eraginik sumatu eraikinaren barruan gutxienez 15-20 minutu eman bazituen ere.

Azkenik, pultsurik ez zuela ohartzean ahoz-ahokoa egin omen zion 2139 agenteak, eta masajea 10545ak. Bietako bakar batek ere ez zuen aipatu ondorioz, nahiz eta geroago anbulantziako zein larrialdietako osasun langileek maskarak jarri behar izan zituzten Calvo artatzeko, ahotik botatzen zuen gasak eragin zien goragale, zorabio edo fotofobiagatik.

## ESKUMUTURRAK

Ertzainen kontakizunaren arabera, kala-bozoetan Calvo lotu gabe egon zen, segundo batzuk salbu: liskarraren amaieran menderatzea lortu zutenean jarri zizkioten eskuburdinak, baina orduantxe galdu zuen pultsua eta berriz askatu zuten. Ordea, autopsiak zein larrialdietako txostenek arrasto sakonak deskribatzen dituzte gorpuren eskumuturretan. ARGIAk eskatuta txostenak zein ertzainen deklarazioak aztertu dituen forentsearen esanetan, ezinezkoa da jakitea zenbat denboraz egon zen Calvo lotuta, baina “ez da sinesgarria segundo batzuetako kontua” izatea. Epaiaketa, forentseek esan zuten eskumuturrak material bigunen batekin lotu zizkiotela Calvori, ez eskuburdinekin. Patxi Bezares erizainak dio eskumuturretan kalamu-sokaren arrastoak zituela Calvok, gorputegian ikusi zuenean. Calvo “txerrixo baten moduan lotuta” ikusi zuela kontatu zion lekuko zuzen batek bere abokatuari, azken honen epaiaketa deklaratu zuenez.

## KOLPEAK

Zortzi ertzainetik bik -10545 eta 1289-onartu zuten deklarazioan Calvo borrarrekin kolpatu izana, “behin”. Zenbait borrakada eman izana aitortzen duen agente bakarra 1289a da, beti ere liskarraren testuinguruan. Autopsiak gutxienez 47 borrakada kolperen arrastoak deskribatu zituen, hamarnaka hematoma eta urratutako azal zatiez gain. Autopsiak deskribatzen dituen barrabiletako “hematoma handien” edo buruko bi ebakien (bat oso sakona) zergatiaz ere azalpenik ez.

## FORENTSEA

Ertzainek deklarazio horiei eutsi zieten oro har epaiaketa ere, eta ez zieten erantzun akusazioen galderei.

Urte askotako esperientzia duen forentse bati ertzainen deklarazioak eta autopsiaren emaitza alderatzeko eskatu dio ARGIAk: “Zalantzarik gabe, polizien kontakizuna, oro har eta xehetasunetan, ez dator bat errealitatearekin. Gorpuren arrasto traumatikoek kontraesan jar-



Juan Mari Atutxa, Iñigo Urkullu eta Ertzaintzako buruak, ekainean Arkauteko komisarian eginiko ekitaldian. Atutxa zen Ertzaintzaren arduradun nagusia Arkauten Calvo hil zuten garaian (2023/06/04).

“Zalantzarik gabe, polizien kontakizuna, oro har eta xehetasunetan, ez dator bat errealitatearekin”

ARGIA-K KONTSULTATU  
DUEN FORENTSEA

tzen dute, eta gasaren ondoriozko heriotzak ere bai”.

## SEGURTASUN SAILAREN BABESA

Segurtasun Sailak heriotzaren lehen bertsioa eman zuenerako ertzainek deklarazioak eginak zituzten. “Atxilotuak konortea galdu zuen nerbio-krisi bortitz bat izan eta lagundu nahi zioten ertzainei eraso egin ostean”. Ez gasik, ez kolperik. Abuztuaren 23an bigarren bertsioa eman zuen sailak, gorpuren egoeraz eta gasaren presentziaren argitaratzen ari ziren albisteek behartuta: Calvo menderatzeko gasa eta borrak erabili ‘beharra’ egon zela onartu zuen sailak.

Juan Mari Atutxak gidatzen zuen Segurtasun Saila Calvoren irudi arriskutsu eta biolentzia ematen saiatu zen. Lehen bertsioa ematean, nabarmendu zuen ertzain bati arma lapurtzen saiatu zela kala-bozoetan, eta bigarrenengoan, atxiloketa unean ere gauza bera egin zuela: atxiloketa uneko ertzainen deklarazioetan ez

da horrelakorik jasotzen. Gas gehiena Calvok berak bota zuenaren bertsioa erosi zuten bi ertzainei, beste seien deklarazioak kontrakoa iradoki arren. Nabarmendu zuen ere Calvo hiru aldiz egona zela psikiatrikoetan ingresaturik, “izaera biolentoko eskizofrenia paranoidea” diagnostikatuta. Bere anaiak eta bizilagunek hedabideetan izaera biolentorik ukatu zuten, eta forentse eta psikiatra banak ARGIAri ziurtatu diotenez, “izaera biolentoko” eskizofrenia ez da existitzen diagnostiko kliniko gisa.

## POLIZIA EREDUA

“Lehen, gure polizia eredu aldatzeko arriskua kanpotik zetorren [zipaio esaten zuten heriengandik]. Orain etxe barruan daukagu eta argi ibili behar gara, gure polizia eredu mantendu nahi badugu”. Horrela mintzatu da 2023an Ertzaintzaren buru Josu Bujanda, Jaurlaritzaren eta ertzainen artean piztu diren enfrontamendu larrien aurrean.

30 urte direla, arazoa soilik “kanpoan” zegoen garai hartan, herritar bat komisarian hil zuten, gasean itota eta kolpez josia. “Bere gaixotasunaren biktima izan da”, adierazi zuen Segurtasun Saileko kontseilariorde Martiarenak; “Ez zen egon desproporziozko agenteen jardunean”, Atutxak. Ertzaintzako sindikatuek beren lankideak babestu zituzten uneoro. Jaurlaritzaren abokatuak absoluzioa eskatu zuen epaiaketa.

Ez zen egon barkamen eskaerarik edo azalpenik familiari, ez aitortzarik Juan Calvori, ez ertzainen kaleratzerik edo espetxeratzerik, ez erantzukizun onartzerik edo dimisiorik arduradun politikoen aldetik. Are gutxiago, polizia ereduaren berrikuspenik. ●



# Barruan daramagun ipuin-kontalaria

Erronka jarri nahi izan dugu ARGIAtik: zenbateraino utzi diezaiokezu sormenari hegan egiten? Zenbateraino bihurritu dezakezu istorio bat eta bilakatu beldurgarria, barregarria, dramatikoa? Gauza al zara euskarak duen aberastasunari etekina atera, hitz-jolasei leku egin eta ipuin-kontalari trebeenen mailan aritzeko?

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ



Ipuinak altxorra dira, altxorra da ipuinak sortzea, kontatzea, entzutea, partekatzea; bestelako munduetara eramateko duten gaitasunagatik, arreta eta jakin-mina erakartzeko duten ahalmenagatik, irudimena eta hizkuntza lantzeko ematen duten aukeragatik. Eta guk, ARGIA n, ipuinen mundua hartu dugu oinarri, atera dugun jolas berrian. OTU du izena eta irudi bana duten 70 kartak osatzen dute. Proposamena da kartak nahastu eta egokitutako irudien arabera istorioak asmatzea, burua eta mihia astinduz.

Adinaren, jolaskideen, gogoen eta abildadeen arabera, jolasteko moduak nahi adina izan daitezke. Norberak sor dezake istorio osoa, karten hurrenkera errespetatuz edo egokitu zaizkizun karten ordena nahieran antolatuz. Taldean arituz gero, txandaka denon artean osatu daiteke pasadizoa: adibidez, bakoitzak karta bat hartu eta karta horrekin aurrekoaren istorioari segida eman dakiok, edo aurrez bakoitzari karta kopuru jakin bat banatu eta norberaren txanda denean eskuan dituen irudien artean

egokiena aukeratu daiteke, istorioa harilkatuz.

Irudi berak baliatuz, oso kontaktuzun ezberdinak osatu daitezke, eta hori ere erronka izan daiteke: ea nork ipuinik beldurgarriena kontatu, irri-garriena, hunkigarriena...

Utzi kartei barruan duzun ipuin-kontalaria ateratzen, eta batez ere, izan dadila disfrutatzeke eta gozatzeke jolasa.

ARGIAren Azokan eskuratu dezakezu produktua: [www.azoka.argia.eus/produktua/otu-karta-jokoa](http://www.azoka.argia.eus/produktua/otu-karta-jokoa) ●



# SOLASTALGIAZ ETA NOSTALGIAZ



JOSEBE BLANCO  
@HAUSNARREAN

**G**lenn Albrecht filosofoak sortutako hitza da *solastagia*, naturaren hondamenak sortzen duen krisi existentziala izendatzeko. Erosotasuna eta minaren arteko konbinazioaren emaitza. Diotenez, *solastalgia*k errazago egiten du habia naturarekin harreman zuzena duenarengan. Lehen kolpean, ordea, minarekin dugun *solasaldia* etorri zitzaidan gogora. *Nostalgiaren* antza ere badu, baina hori atzerako ispiluari begira joatea da. Bien artean bizi gara.

*Nostalgia*, Debagoienan. Trekutzetik behera hasten zarela, hor goi-tentsioko lineetako dorreak eta kableak alderik alde. Behe-lainorik ezean, Beasain-Durango autopistak erauzitako mendietan jartzen du azpimarra. Paraleloan, AHTren bideak agerian uzten du mendiaren odolustearen lorratza. Magal berean, urrunean, harrobia, eta parekoan eukaliptoak. Behean, zuloan, Antzuola.

*Solastalgia*, Urola aldean. Etxerako bidean Izarraitz dut iparrorratz; Izazpi, Oleta eta Samiño alboan ditut negarrez, ahotsak baserri gutxitan aditzen dituztelako, denak beldurrez. Kostarratzutik beherako aldapak eskuinera jotzen duenean, Aralar azaltzen zait urrutian, Pagotxeta eta Irimo artean, podiumean bezala: urrezkoa, bigarren mailakoa eta *tertzerakoak*.

Eta, antza, mailaketa tristen oinarritzen da sunsiketaren dosifikazioa: urrezko mailakoak ukiezinak dira –momentuz–, bigarrenekoak komenentzia politikoaren arabera, eta *tertzerako entierrokoak* sakrifikagarri ziurrak.

Pandemia aroan paradisua izan ziren paisaia xumeetako biztanleok kondenuatu gaituzte osatzen gaituzten parajeekin minez, eta minaz, solastatzera; egunero. Batzuen erabakimenez –eta besteen konplizitatez–, egiten gaituzten paisaiek diren hori izateari utziko diotelako.

**egonarrria**  
Lurrari entzuten dion saioa

Gai nagusia: **Haziak**

Esperientzia: **Allanegi baserria**

Marc Badal eta Kelo Arribasek hazien mundu mailako egoera azalduko digute, baita hauek lantzeko gakoak ere. Esperientzien atalean, Eneko Imazek Elduaingo Allanegi baserrian ekoiztu eta Tolosako azokan saltzen dutena azaldu digu.



ENERITZ ARZALLUS

argia.eus    bizibaratztea.eus

Dolua bazterretan. Elikatzen gaituen iturburura itzultzerik izango ez dugulako. Soroak betiereko beltzera kondenuatu dituztelako, sasoiko kolore aldaketa debekatuz. Mendien siluetan sumatzen den etorkizunarekin amestu ezingo dugulako.

Eta ezin beste inora joan. Nola, bada, utzi bazter hauek, han ez izatekotan? Gehienok industrialde erraldoian bizi bitartean, gutxi batzuek izango dute, bai, urrutiko paradisua, munduan pertsona egiten duen sena elikatzeke.

Afera poetikoa dirudi, baina zer dago poesia baino haragizkoagorik? Zer, pertsonak egiten gaituzten paisaiak baino errealagorik? Zer gara elkarren isla besterik? Nork zehaztuko du megawatt balantzean, munduan pertsona izateko sena eta leku bat izatea zenbat megawatti dagokion?

Sen horrek, hain zuzen, garamatza gure tokia defenditzera. *Solastalgia*k gordetzen duen indarra daukagu, nostalgiaren besarkadan ez itotzeko. ●



# TRUMONIRA ETA APAIZAREN LIZARRA



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**H**emen da urte guztiko marraka. Urteari geratzen zaion erdia eguna moztu eta moztu izango dugu. Esaerak dio "San Joan larraka, urte guztiko marraka". Damaso Intzak jaso eta Iruñean 1974an argitaratu zuen *Naparroako Euskal Esaera Zarrak* liburuan honela argitzen du: "San Juan larraka esaten da sanjuanetan eguraldi txarra dagonean, illun, otz samar, ez euri ta ez ateri, gari asko oraindik burutu gabe, kanpoko guzia oso atzeratua". Aurten izan da ba larraka, eta baita marraka ere, hau da, hodei-marraka edo trumoi-hotsa.

Trumoi-hotsaren marraka urte guztirako etorri bada, trumoi-ira edo trumonira (*Osmunda regalis*) ira edo garoaren premia izango dugu. Ispastergo Xabier Laka Arrizubietak ederki gogorarazi digu berak dioen eran trumoi-idaren argazkia sarean zabalduz. Doniane-ira, Jondoni Joane-iratzea, sanjuan-iratze, sanjuan-garoa eta sanjuan-ira ere esaten zaio eta ekaitzetik babesteko doniene egunean bedeinkatu behar da, eta Azkuek, apaiz katoliko izaki, honela argitzen digu nola erabili: "Ereiñotza ta trumonireta, orduko bedeinkatuta, teilla-ganean atarian erre oi dira trumoi-egunetan: urtean enparetan direanak doniane-bezperan erreten doguz". Ereiñotza edo erramua *Laurus nobilis* da.

Atari baratze, soro, sagasti, belaze eta abar babesteko, garoaz gain lore sortak jartzeko ohitura ere bada, sanjoan sortak. Etxe eta eskualde bakoitzean sorta osatzeko lore aukeraketa berezia da. Sendabelarrak, errituetan erabiltzen direnak, xurienak, sasoi honetan loraldi



Ainara Riveras Irustak ateratako argazkia, Mallabiko Goitako San Joan jaietan.

bikainena dutenak, bakoitzak bereak.

Sortetan loreez gain belarrak ere izaten dira, baita hostoak ere. Oso gutxitan baina sortaren oinean landareen lurreko buruak ere ikusi izan ditut; oraintxe jasotzeko moduan dauden baratxuria (*Allium sativum*) eta tipula (*Allium cepa*) adibidez. Ikusi Ainara Riveras Irustaren argazkia, Mallabiko Goitako San Joan jaietakoa.

Oso aberatsa da udako solstizioaren inguruko landareen gurtza, eta zaharra; amaren ama naturaren gurtza, ez galbidera beste inora ez garamatzaten beste gurtza horiek bezala, diruarena, jainkoena... Landareek behinik eusten

gaituzte, haiek gabe ez ginateke.

Landareen gurtzea eta agur ona kontu zaharra izango da, bedeinkazioaren beharra gero etorriko zen; behartutako beharra, sekta hagintariaren egin-beharra. Ohikoa da atarrietan lizar arbak jartzea (*Fraxinus excelsior*); eta ederki dakigu lizarra dela sektaren bedeinkaziorik behar ez duen landare bakaretakoa, berez da bedeinkatua. Horregatik izango dugu gure artean, elorri zuriarekin batera (*Crataegus monogyna*), zuhaitzik babesleena.

Gure herriko sekta katolikoko apaizak ere badu, agidanean, horren berri, apaizetxeko atarian lizar adarrak jarri baititu. ●

## ELIKALDIA

## EUSKARA ERABILTZEA BEZALA, JATEN DUGUNA ERE HAUTU POLITIKOA DA



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**E**likadura burujabetza eta jasangarritasuna bultzatzeko dinamika da Elikaldia, eta Euskaraldia bezala, ariketa sozial bat izan nahi du". Urtzi Ugalde Elikaldia egitasmoko kidearen hitzak dira. Urriaren 16tik 21era egingo da ekimena lehen aldiz, Bilboko Alde Zaharrean. Asmoa, herritarrak euren kontsumo ohituren inguruan hausnartzera bultzatzea eta horiek eraldatzea da. Lehen esperientzia pilotua izanen da aurtengoa, antolatzaileak dioen bezala, txikitik eta pixkanaka eragin nahi baitute. Aurrera begira, baina, egitasmoa zabaltzeko aukerarik egonen dela dio.

## ROL BANAKETA

"Euskarak eta elikadurak badituzte antzekotasunak: denona da, baina aldi berean, ez da inorena", dio Ugaldek. Horregatik, Euskaraldiaren erreferentzia aski ezaguna hartu eta elikadurara ekarri dituzte bertako rol desberdinak: Elikalagunak, Elikaguneak eta Elikaproduktuak izanen dira aukerak, kasu honetan. "Egun batzuetan zehar haien kontsumo ohiturak aldatzeko eta eraldatzeko modu aktiboan jokatu dutenak dira



Elikalagunak; pertsona horiek erosketak egin ahal izango dituzten tokiak, Elikaguneak; eta horietan topatuko dituzten produktuak, Elikaproduktuak".

Baina, nondik sortu da ekimen berezi hau? Horrela azaldu digu kideak: "Elikaduraren nazioareko egunaren harira, zerbait egiteko lanean hasi ginen lehenagotik elikadura burujabetzaren eta jasangarritasunaren bueltan genbiltzan hainbat talde". Horrela sortu zen ideia, eta horrela eraman dute aurrera. Ekimen hau antolatzeko Bizkaiko ekoizle agroekologikoekin daude harremanetan.

## ZUBIAK SORTZEN

Bilbon modu jasangarrian elikatzeke dauden aukerei begira, nahiko plaza zaila dela azaldu du Ugaldek: "Alde batetik, oso espazio txikian komertzio asko dagoen tokiak dira Alde Zaharra eta Bilbo Zaharra, baina, aldi berean, azken hamarkadetan bilakaera oso bortitza izan du, elikadura kate handi asko sartu dira eta komertzio txiki askok itxi egin dute". Orokorrean, kontsumo inkontzientea eta pasiboa bultzatu eta zabaldu den eremu bezala identifikatzen du zonaldea, eta dauden alternatibak aurkeztea eta ezagutaraztea ere bada ekimenaren helburua: "Denda eta taberna txikiak zerrendatzen ari gara, zer dagoen jakiteko, eta gerora diagnostiko moduko bat egiteko".

Iraileko lehen hamabostaldian Elikaguneen zerrenda itxita izatea espero dute, eta orduan zabalduko dute Elikalagunek izena emateko aukera. Elikaldiak iraungo dituen egunetarako, gainera, bestelako ekimenak antolatzeko asmoa ere badute: eskolakoekin ekimenak, auzo merkatutxoak, sukaldaritzatillerrak, topaketak... Herritar ahalik eta gehienengana iristea eta horiei baliabideak ematea izanen da helburua: "Honezkeroraldaketa prozesuan dagoenari gehiago sakontzeko balioko dio, eta bestelako ereduak ezagutzen ez zitueneri, berriz, horiek ezagutzeko". ●



**HEMEN DAGO  
NAFARROA**

Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA



## UEU IKASTAROAK



UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Jon Torner ARGIAko kazetari eta kideak hitzaldia eskaini zuen ekainaren 20an Erreterrian, adimen artifizialaren inguruan, UEUK, Badalabek eta Erreterriako udalak antolatutako jardunaldian.

## Autopistaren ondoan bide-zidorrak

### ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**H**umanitate Digitalak Euskal Herrian 2023: Adimen Artifiziala auzitan ikastaroa antolatu dute UEUK, BadaLab-ek eta Erreterriako Udalak elkarlanean, eta ekainaren 20ko saioan Jon Torner ARGIAko kazetariak hitzaldia eskaini zuen, Adimen Artifizialari (AA) kazetaritzatik begiratu. Gai konplexua da, zarata handia sortu da ChatGPT eta antzerako testu-sortzaile automatikoen inguruan, esaterako, baina eztabaida hasi besterik ez da egin eta euskal komunitatean, euskaraz, zer aukera ditugun aztertzeke parada izan da ikastaroa. “AA hauek perspektiba propio eta gertukoetatik problematizatu eta auzitan jartzea proposatzen dugu”, irakur daiteke ikastaroaren aurkezpenean.

Hekimen euskal hedabideen elkar-teak aste pare bat lehenago, hain justu gaiaz hausnartzeko, antolatutako formazio saioa baliatu du Tornerrek han en-

tzun eta ikasitakoak kontatzeko, ARGIAren kodeetatik aztertuta. Erantzunak eman baino, galderak planteatu ditu kazetariak, bere aurretik Miren Berasategi Komunikazioan doktore eta Deustuko Unibertsitatean irakasleak bere hitzartzean ondo aipatu bezala, “altuan pentsatzeraz” batu baitira bertan.

Adimen Artifizialarena ARGIA ez da bizi apokalipsi moduan, ez eta dena hobetuko duen errezeta magikoaren moduan ere. Denak bezala, baditu on eta txarrak. Berria den arren, tresna hau iritsi da, etxe atarian dugu, ate joka, baina nola sartuko den hitz egin beharrean gara. Giltzak emango dizkiogu nahi duenean, nahi duenarekin, nahi duen bezala sartzeko? Ala garbi utziko diogu etxea gurea dela, etxe honetan gure arauak errespetatu behar direla eta ezingo duela nahi duena egin? Badugu horretarako baliabiderik?

## CIES

### NORK DIO PAPERKO HEDABIDEEK EZ DUTELA ETORKIZUNIK?

Hedabideen inguruko CIES inkestaren 2023 urteko lehen olatuak irakurle gehiago eman dizkio ARGIAri, beste behin. Paperean argitaratzen dugun aldizkariaren audientziak gorantz egiten jarraitzen du eta jadanik 67.000 lagunek irakurtzen dute astero ARGIA Hego Euskal Herrian –Iparraldeko datuak gehitu behar zaizkio beraz–. 2015ean 45.000 ziren, hau da, zortzi urtean %33 igo da irakurle kopurua, eta gorantz jarraitzen du.


Papereko prentsa krisian dagoela eta orokorrean egunkarien papereko edizioak irakurleak galtzen ari direla esan ohi da aspaldiotan. Testuinguru horretan, ARGIAk inoizko irakurle gehien ditu. Astero, aktualitatea ikuspegi kritikoz ulertzen lagundu nahi duten eduki sakon eta zabalak argitaratzen ditugu, eta irakurleak estimuan du formatu hori, datuek aditzera ematen dutenez.

Urtez urte ARGIA ekonomikoki gero eta kide gehiagok babesteak ere badu zerikusirik irakurleen goranzko bilakaerarekin. Milesker denoi euskal kazetaritza eraldatzailea zabaltzen laguntzeagatik!

ARGIA badira galderak (eta galderekin batera azterketak). Zer aukera daude, esaterako, lizentzia libreen hautuarekin segitzeko? Zer gertatzen da arrakala digitalarekin? Hizkuntza handientzat egindako teknologia hauetan, non geratzen da euskara? Lor al liteke adimen artifiziala demokratizatzea? Energia krisi baten erdian, nondik aterako da hau dena eraiki eta mantentzeko energia? Eta zein lekutan geratuko dira burujabetza teknologikoa, pribatutasuna edo giza-eskubideen bermeak?

Irabazi asmorik gabeko negozioetan sinesten ez duten handiak hasiak dira bidean harrapatzen dutena berena egiten, baina badago beste bide batzuk esploratzeko aukera. Autopistaren ondoan sarri egon ohi da hartzeko bide txikiagorik ere. Errebuelta gehiago izaten dituela? Bai, usu. Baina paisaiak ere politagoak izaten dira. ●

# Gerra galtzea eta suizidioa



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**A**gudo, Ciudad Real (Espainia), 1943ko martxoaren 12a. Anisio Castillo Lopezek bere burua tiroz hil zuen 37 urte zituela, jaioterriko hilerriko horman. Espainiako gerra amaituta, urtebete eman zuen preso eta, ondoren, berriro espetxean sartu nahi zutelako, mendira ihes egin zuen. Bere arrastoen ondoan topatutako ohar batean idatzi zuen agintari frankistek bere familia bakean utz zezaten suizidatu zela: "Neure burua hil dut, mundu honetan gehiago ez atsekabetzeko, nahiko atsekabe izan baitut eta familiari ere atsekabea eragiten diot, inolako errurik gabe". Oroimen Historikoa Berreskuratzeko Elkarteak (ARMH) 2021eko irailan exhumatu zuen Castilloren gorpua eta, arrastoak aztertu eta identifikatu ondoren, ekainaren hasieran ehortzi berri dute.

Ez zen gerra hark eragindako suizidio bakarra izan; esaterako, 1937ko apirilaren 23an, Gernikako bonbardaketa baino hiru egun lehenago, Vigoko O Berbés portuan (Galizia) bederatzia antifaxistek beren buruaz beste egin zuten, indar frankistek atzeman baino lehen.

Antzinarotik dator etsaiek harrapatu baino lehen suizidatzeko joera hori. K.a. 133. urtean, Agudotik 400 bat kilometrora, egungo Soriatik gertu, Numanziako biztanle gehienek -1.500-2.000 inguru- beren buruaz beste egin zuten, erromatarren setio latzari hilabete luzez eutsi ondoren. Handik bi mendera, K.o. 73an, Judeako basamortuan, Masadako 1.000 biztanle inguruk elkar hil zuten -suizidioa bekatua da judutarrentzat-, haiek ere erromatarren setioak estututa.

## II. MUNDU GERRAKO GALTZAILEAK

Japonian, mende luzez, *seppuku* edo *harakiri* erritualaren bidez suizidatu izan dira etsaien eskutan ohorea galdu baino lehen. II. Mundu Gerra galtzean gehienek metodo eraginkorragoak erabili behar izan zituzten. Ezaguna da Saipan uhartean gertatutakoa: 1944ko uztailearen



Anisio Castilloren arrastoen exhumazioa, 2021eko irailan. 1943an Castillok bere buruaz beste egin zuen, historian beste gerra galtzaile askok egin bezala.

9an, soldadu estatubatuarrak iristean, biztanle askok Marpi Pointeko itsaslabaurretan behera bota zuten beren burua.

Alemanian, gerra amaieran izandako suizidio masiboen gaia Florian Huber historialariak aztertu zuen 2016ko *Kind, versprich mir, dass du dich erschießt* liburuan ("Zin egidazu zure buruari tiro egingo diozula"). Gerra amaierako kaotik, ez zen suizidioen estatistika zehatzik jaso, baina historialari alemaniarrak dozenaka milaka izan zirela uste du. Eta garbi dauka suizidio masiboak ez zituela Adolf Hitlerren suizidioak berak eragin. Izan ere, irratiak gezurra esan zuen Führerraren inguruan, etsaien aurka borrokan heriotza heroikoa izan zuela zabaldu baitzuen.

Alemaniko kasurik deigarrienetakoa Demminekoa da: 15.000 biztanletik 1.000 inguruk hil zuten beren burua. Datu zehatzik gabe ere, Huberrek garbi du herrialdearen ekialdean suizidio

gehiago izan zirela, Ejertzito Gorriak zibilei egiten zizkieten basakerien eraginez. Hala, sobietarren bortxaketa masiboak zirela eta suizidatu ziren emakumeen kopurua oso handia dela dio; soilik Berlinen, 10.000 emakumek hil zuten beren burua gerra amaieran.

Erruduntasun eta, behintzat, erantzukizun sentimenduak akuilatu zituen suizidioak, ohorearekin batera. Gizonezkoek gerra galtzean eta emakumeek bortxatuak izatean galtzen omen duten ohorearen kontzeptua oso errotuta zegoen alemaniar gizartean, hamabi urtez erregimen naziaren propagandak hauspotuta. Goebbels propaganda ministroak berak ere bere buruaz beste egin zuen, Magda amaztearekin batera, beren sei seme-alabak pozoitu ondoren. Anisio Castillok bezala, Goebbelsek familiaren sufrimendua saihestu nahiko zuen, baina Castillok soilik bere burua sakrifikatzea erabaki zuen. ●





Jotzeko deitzen bagaituzte,  
gure diskurtsoarekin bat egiten  
dutelako izan dadila,  
eta ez gu haiekin lerratzeko

## Amets Aranguren eta Ibai Osinaga

Ibil Bediko kideak

Denbora luzean goxatu dituzte abestiak Osinagaren estudioan, eta udaberrian iritsi da emaitza: *Goldea* (Autoekoizpena, 2023). Hirugarren diskoa du Ibil Bedi talde nafarrak, eta goldea hitzak dioen moduan, lurra –eta kasuon kultura– iraultzera datoz oraingoan, behin orain arteko bi bideak amaituta. Sustrai gehienak kendu eta irauten duten horiei eutsita, sortzera.

### GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**Aipatzen zenidan Amets, bost kidek osatzen duzuela Ibil Bedi, ez zaretela zuek bakarrik taldearen ordezkariak, eta jakina, norbaitek eman behar duela aurpegia, baina zuk zeuk ez duzula gustuko. Zergatik?**

**Amets Aranguren:** Kanpotik jaso ditudan hainbat iruzkinengatik konturatu naiz horretaz, eta egia esan, uf... Ez dakit beldurra den, baina errefusatze puntua bai sortzen didala horrek. Eta beno, Ibil Bedi da, baina nire kasuan oraintsu Euskalgintzaren Kontseiluan hasi naiz lanean, eta tokatu zait aurpegia ematea.

Ez zait inoiz gustatu jende profil bat leku guztietan agertzen dena, eta beti izan diot beldur handia horretara hurbiltzeari.

### **Eszenaratzearen beldurra da?**

**A. Aranguren:** Errespetua ematen dit. Ez nuke hurbildu nahi pertsonaia publikoa izatera, oso arriskutsua iruditzen zait. Herri honetan joera handia dago jendea mitifikatzeko: leku eta une batean, profil jakin bat duen pertsona batek zerbait interesgarria esaten duenean, ematen du pertsona horrek leku guztietan egon behar duela aurrerantzean, eta ahotsa eman behar zaiola

gauza guztietarako. Ez nuke horretara hurbildu nahi. Gainera, aparte, ez naiz bideo eta argazkietan atera zalea. Uste dut taldean ez dugula hitz egin Ibil Bedik hartu duen dimentsioaz...



**Ibai Osinaga:** Ez dugu hitz egin, ez. Baina uste dut, talde guztietan bezala, taldeak kanpora begirako irudi bat duela, eta jendeak pertsona jakin batzuekin erabat lotuta ikusten du Ibil Bedi. Guri, kasu honetan bezala, elkarrizketa gehienak ematea tokatu zaigu, eta gu izan gara “aurpegia”. Disko honekin, hala ere, aldatu da zertxobait, elkarrizketa gehiago egon dira beste kideekin. Saiatu gara, edo agian inkontzienteki atera zaigu.

**A. Aranguren:** Nik oso kontzienteki egin dut, batez ere, batak elikatzen duelako bestea: elkarrizketa batzuetan ateratzen gara gu eta ematen du ja gu garelako taldea, eta horrek barne mailan eragiten du. Beste kideek ez dute guk baino gutxiago esateko; agian beste gauza batzuk kontatuko dituzte, interesgarriagoak izan daitezkeenak.

**Pertsonaia publikoa izatearen beldurra, errefusatzea... aipatu duzu. Emakume izateak ere eragina du horretan?**

Ibil Bediren kontzertua Bilboko Kafe Antzokian,  
ekainaren 8an.

HIBAI AGORRIA





**A. Aranguren:** Segur aski bai, hor non-bait egongo da. Uste dut ez dudala modu zuzen edo esplizituan bizitzen, baina horrelako zeozer sentitzen dut aipatu dudan profil mota horri dagokionez. Iruñekoa naiz, neska, gaztea, euskararen bueltan dabilena... Batzuetan komodin modukoa sentitu naiz.

**I. Osinaga:** Ibil Bedin ere izan duzu sentsazio hori? Esan nahi dut, aipatzen da beti...

**A. Aranguren:** Kupoarena?

**I. Osinaga:** Bai.

**A. Aranguren:** Gure taldean bertan ez, baina bestelako egoeretan, emakumezko kupoa bete behar hori, mahai inguruetan, musika taldeetan, jaialdietako karteletan edo dena delakoetan... Oso errotuta dauz kagun kontuak dira.

**Historikoki errotuta egon den profila da gizonezko musikari arduragabearena edo askotan lotsagabearena. Eroso dagoela oholtzan, nahi dituen jarrerak eduki ditzakeela eta abar. Nolabait ere uztartzen da, ezta, plaza publikora ateratzeko batzuen beldur hori eta gizonezkoa izatea?**

**A. Aranguren:** Gustatzen zait bereiztea zer den norbere izaeraren parte eta zer den emakume izateagatik egiten ahal dardana eta egiten ez dudana. Gure kasuan, erabat kontziente naiz gehiago kostatzen zaidala oholtzan presentzia izatea, baina egia da ere Ibaik urte asko pasa dituela oholtzan Altxatu taldearekin. Ohikoa zena beretzat, berri-berria zen niretzat. Dena den, taldean beste emakumezko bat egoteak asko-asko laguntzen du, zalan-tzarik gabe.

**I. Osinaga:** Jendartera irteteko diseinuan egin ditugu moldaketak. Gaur egun dugun kokapenak (zirkulu erdia osatuta, beste zirkulu erdia publikoak egiten du) laguntzen du horretan. Ez dago inor erdian; lehen, bi aurrean eta hiru atzean jartzen ginen, eta ni nintzen aurrean eta erdian zegoena. Pisua kendu dudala sentitzen zut, eta kokapen horrek, gainera, ardurak banatzen ditu era orekatuagoan.

**Kontzienteki hartutako erabakia da?**

**I. Osinaga:** Bai, erabat.

**Eta zergatik?**

**A. Aranguren:** Denok geunden ados aldatzearekin, ez da izan Ibaire eskatu diogula lehen planotik kentzeko. Uste dut, gainera, ederra dela denok elkar ikustea.

**I. Osinaga:** Musikari kopuruak ere ez du

askorik errazten, ez da erraza estetikoki bost pertsona hor kokatzea.

**Eszenaratzeko moduan ez ezik, ahotsetan ere eman da eboluzioa.**

**Lehen diskoan oso-osorik zeuk abesten zenuen, Ibai, eta apur-apurka joan da Ametsen aldera jotzen, nolabait ere parekatzeraino.**

**A. Aranguren:** Jende askok aipatu digun zerbait izan da, baina horren atzean ez da erabaki argirik egon, horrela sortu da.

**I. Osinaga:** Kantuen arabera izan da gehiago. Disko honetan kantu gutxiago idatzi ditut nik, letra gutxiago, eta Ametsen gehiago.



Kultura ulertzen dut tradizioa ulertzen dudan modutik; etengabe mugimenduan dagoen zerbait gisa

**Ibai Osinaga**

**Idazten dituenak kantatzen ditu?**

**I. Osinaga:** Orain arte ez beti.

**A. Aranguren:** Baina letrak proposatzen zituenak, letra horrekin batera melodia ere proposatzen zuen, normalean. Eta orduan askoz ere errazagoa da zu zeureekin eta ni neureekin geratzea.

**I. Osinaga:** Bai, horrela da. Badira bi kantu elkarrekin abesten ditugunak oso-osorik, eta beste guztietan, nire letrak nik kantatzen ditut eta Ametsenak Ametsek.

**Beraz, geroz eta gehiago abesten duzu Amets, proposamen gehiago egin dituzulako. Zeure ahotsa topatu duzulako da?**

**A. Aranguren:** Ez nuke esango, baina ez dakit. Proposamen gehiago egin ditudanez, eta horietan nik kantatzen dudanez, moldatu ditut beti pixka bat nireira. Alegia, kantu batzuk nik sortuak izan direnez, hor topatu ahal izan dut non nagoen eroso.

Gu bion ahotsen artean oso diferentzia handia dago: berea askoz ere potentetagoa da, indartsuagoa, bolumen aldetik badauka gaitasun askoz handiagoa... Eta nirea gordeagoa da. Ez dut uste berez

gordeagoa denik, baina uste dut, nire ahotsa kantuan gustatzeko, askoz ere modu gordeagoan izan behar duela.

**Eta zuk, Ibai?**

**I. Osinaga:** Ez nuke esango ahotsa “topatu” dudanik. Izan ditut oso erregistro ezberdinak, hainbat gauza probatu ahal izan ditut eta moldatu naiz gehienetan. Baina ez, ez dut sentsazio hori.

**Letrak eta doinuak proposatu bai, baina proposamen horretatik emaitzara aldea egongo da, ala?**

**A. Aranguren:** Izugarri aldatzen da, jakina, eta polita da prozesua ikustea. Denon artean janzten da kantua. Proposamena eramaten duzunean, zuk zure buruan irudikatu duzu nola izatea nahi duzun amaiera, eta normalean, ia beti, ez da hori izaten. Zeuk nondik eramaten zenukeen kantua; horixe da zeuk imajinatu duzuna da. Baina ez zara zu, talde bat da. Polita da ikustea kantuek zein ibilbide egiten duten zure proposamenetik abiatuta.

**Musikalki, egonkorturik ikusten duzue taldea?**

**I. Osinaga:** Ikusten dut taldea egonkortuta, baina ez zentzurik itxienean, baizik eta gai garelako pentsatzen dugun hori egiteko. Hau da, norberak esaten du zer bilatu nahi duen aspektu bakoitzean eta taldekideak gai gara ulertzeko zer esan nahi duen. Hori da niretzat egonkorturik egotea.

**A. Aranguren:** Leku batean egon bagaude talde gisa, baina musikalki ez dut uste.

**I. Osinaga:** Musikalki ere bai: taldean aritzearena, batera jotzearena, tempoa... Gauza teknikoak direnak ongi eramaten ditugu.

Aurreko diskotik hona eboluzio bat egon dela esan digute, baina mantentzen dela Ibil Bediren “esentzia”. Ez dakit zer den, baina badago hor zerbait, hain justu aurrekoan Areta taldekidearekin komentatzen nuena: egon daitezkeela talde asko oso antzekoak direnak, baina horietan ezberdintzen dituen ahotsak direla. Hau da, nire ahotsa nirea da eta inork ezin du imitatu. Uste dut ez diogula garrantzia handiegirik ematen, baina hain handia da hori, jendeak gure ahotsa entzunda badakiela geu garelako.

**Bien ahotsak karakteristikoak dira, ezberdinak, baina osagarrialdi berean. Xirarena kantuan bistakoa da, esaterako.**

**A. Aranguren:** Bai, lortu genuen kantu horretan bi ahots hain ezberdin osaga-

rriak izatea, bakoitza beretik joanda.

**I. Osinaga:** Agian ez dira osagarriak tekniki, modu jakin batean kantatzen dugulako, baizik eta ikasi dugulako elkarrekin abesten. Edozein ahots izan daiteke bateagarria landuz gero.

**Goldea izena eman diozue diskoari. Nekazaritzan, lurra iraultzeko ibiltzen den tresna da goldea, eta zuenera ekarrita, Donostiako kontzertuan bederen aipatu zenuten zergatia: kultura irauli nahi zenutela hainbat sustrai mantenduta. Sakondu dezakezue?**

**A. Aranguren:** Kontua da Areta master bat egiten ari dela, “kulturaren kudeaketa” edo horrelako zerbait izena duena. Bere apunte batzuetan agertu zenez, teoria batean oinarritzen da goldearen kontzeptua, zeinak... Zer zen, Ibai?

**I. Osinaga:** Kulturak funtzionatu behar duela golde batek bezala.

**A. Aranguren:** Hori da, lurra mugitu behar dela, jada balio ez duten sustraiak kendu, garbiketa egin, eta lur horretan bertan jarraituko dugula ereiten. Egongo dira sustrai batzuk geldituko direnak, oraindik balio dutelako. Izen hori jarri ge-

“ ”

Herri honetan joera handia dago jende bat mitifikatzeko

### Ametz Aranguren

nion, alde batetik izena jarri behar zaiolako, eta bestetik, uste dugulako irakurketa hori badela guk kultura ulertzeko dugun moduarekin.

**Eta nola ulertzen duzue? Maila pertsonalean, behintzat.**

**I. Osinaga:** Tradizioa ulertzeko dudan modutik, uste dut. Ion Celestinok eta Broken Brothers-ek jo duten bidetik da apur bat, tradizioa ulertzen den modu bat, non tradizioa ulertzen den etengabe mugimenduan dagoen zerbait gisa. Gure kasuan, musika.

**A. Aranguren:** Horretarako erabiltzen da Oteizaren irudi bat, traineruarena: aurre-

ra doaz, baina atzera begira.

**I. Osinaga:** Izan daiteke ziklikoa, sustrai batzuetatik edanda; lehengoari erreparatzen zaio, baina ez da imitatzen ere ez. Duela 15-20 urteko musika egiten egongo ginateke bestela, eta egia da, batzuk ari dira horretan. Ez da horri guztiz ezetz esatea, erdibideko zerbait gehiago da.

**A. Aranguren:** Duguna dantza taldeko Aritz Ibañezi irakurri nion aurrekoan, tradizioa berez litzatekeela une batean eta testuinguru batean gertatzen ari den zerbait, egoera bati erantzuten diona. Ez da zuri-beltzezko argazki bat. Eta hain justu, Celestino aipatu dugula, berarekin aritu nintzen hizketan aurrekoan, eta horrelako zerbait esaten zidan: “Ados, iragan batetik gatoz eta etorkizun bat eraiki nahi dugu, baina orainaldi batean bizi gara”. Uste dut arrazoi duela, tematzen garela iragan bat mantendu eta kontserbatzen, eta etorkizun bat eraikitzen. Eta oraina zer? Ahazten zaigu eta horri erreparatu beharko genioke. Beti ari gara biziraupenaren alde lan egiten; badirudi herri honen helburua dela mundua bukatzen den egun horretaraino eramatea, bizirautea, eta bitartean hor kokatzen gara, hau hartu eta hara eramaten.



Osinaga eta Aranguren solasean, Katakraken, ARGIArekin egindako hitzorduan.





HIBAI AGORRIA



HIBAI AGORRIA

**Sarri hitz egiten da eszena gazte berri bati buruz, politikoki ere aurrekoarekin apurtzera etorri dena, edo aldatzera, behintzat. Diskurtso politikoa garrantzia du, baita politikoki lerratzek ere.**

**I. Osinaga:** Musika egiten dugu guk eta musika kantatua gainera. Diskurtsoa, jende batentzat, soilik hor geratzen da, kantatzen dugun horretan; alegia, eduki hori letretan bakarrik islatzen dela batzuentzat. Niretzat inportanteagoa da taldearen jokabidea hain agerikoak ez diren erabakietan.

**A. Aranguren:** Niretzat klabea da zer zaren: esaten duzuna edo egiten duzuna. Biak ahal dira izan, baina niretzat egiten duzuna zara. Zerbait esateak eta praktikan hortik ez joateak ez du deuserako balio. Gainera, uste dut batzuek zilegi dela zerbait esan baduzu kontrakoa egitea, ustezko presio baten pean zaudelako, edo behar baten pean zaudelako.

**I. Osinaga:** Kontu hauek gure artean komentatzen ditugu eta kontua da badakigula zeintzuk nola jokatzaren duten barrura begira, zer gauza egiten dituzten eta zer ez, eta kanpora begira, aldiz, zer saltzen duten. Publikoak dakiena da kanpora begira zer egiten duen. Hor dago mamia. Autokritika egitea ere badagokigu: taldeen arteko komunikazio faltak badu eragina horretan. Badakigu jendea zertan ari den, baina ez dugu hitz egiten.

**Ez dago komunikaziorik?**

**A. Aranguren:** Hedabidetako elkarrizketetan edo mahai inguruetan soilik hitz egiten da horrelako gauzei buruz, foro publikoetan. Ez daukagu, ordea, eztabai-

“ ”

Klabea da zer zaren: esaten duzuna ala egiten duzuna. Zerbait esateak eta praktikan hortik ez joateak ez du deuserako balio

**Amets Aranguren**

da horiek pribatuan emateko espaziorik. Hainbat hilabete badaramatzagu batzuen artean esaten elkartu behar genukeela, jende diferente asko bilduta, eta gure artean hitz egin, ezer grabatu gabe eta inon publikatu gabe. Ez naiz joango ni nire dogmekin: entzun nahi dut jendea, kontentzitzen utzi ere, ulertu gauza batzuk... Epaiketarik ezer ez.

**I. Osinaga:** Gatazka hauek azaleratzen dira noizbait zerbait potoloa gertatzen denean...

**A. Aranguren:** Nahiz eta aipaturiko espazio horiek ez egon, dauden harremanak oso onak dira. Oso diferentea den jende askorekin dugu harreman ona, eta tokatu zaigu kointziditzea asko.

**I. Osinaga:** Gure zirkuitua txikia da; ia talde guztiak pasako dira ia toki berdinetatik.

**Zirkuitua txikia izango da, baina lerratu beharko zarete eta erabaki**

**non jo eta non ez, esaterako.**

**I. Osinaga:** Last Tour-ek hartzen duen zirkuitu guztiarekin, hemen, Iruñean, ez dugu hainbeste sentitzen hori dela zirkuitu bat eta gurea bestea. Ikusten ari naiz, baina, hemengo talde asko ari direla harantz egiten. Han jotzeak, aldiz, ekar dezake talde horrek Jarauta kaleko Aintzina tabernan ez jotzea. Hor dago niretzat bi zirkuituen ezberdintasuna: oso underground-a den zirkuitu bat eta oso goian dagoen beste bat. Baina erdian ere badago saltsa; txosnen zirkuitua, adibidez.

**A. Aranguren:** Oso gauza diferentea iruditzen zait norbaitendako jotzea edo norbaiten izenean jotzea. Norbaiten izenean ari zarenean, ari zara mugimendu, kolektibo edo norbanako horren diskurtsoa zeure egiten; baina norbaitendako jotzen duzunean, haiek dira zurearekin bat egiten dutenak. Nik ulertzen dut, beraz, norbaitek deitzen bagaitu, gure diskurtsoarekin bat egiten duelako dela, eta ez guk haienarekin bat egiten dugulako. Oholtzara igotzen gara eta eskaintzen dugu gure burua; nik ez dut publikoan dagoen jende guztiarekin bat egingo, baina publiko horrek bai erosten duela guk eskaintzen duguna.

Horrez gain, non jo eta non ez ez erabakitzea, hori ja erabakia da. Ez dut uste guk noizbait esan dugun ezetz nonbaiten jotzeari ez dugulako bertako diskurtsoarekin bat egiten.

**I. Osinaga:** Dena den, aipatu duzun formula estrapolatu daiteke zirkuitu ez oso handietara. BKK Live-tik deitzen bagaituzte, eta joaten bazara, legitimatzen ari zara egiten dutena.

**A. Aranguren:** Uste dut zure esku dagoela horrekin zer egin, eta jakina, asumitu



beharko duzu horren parte bat. Dena den, bai, mailak eta mailak daude.

**I. Osinaga:** Gure zirkuituak hain dira txikiak, beti funtzionatzen duela diskurtso horrek.

**Diskora itzulita. Ibai, zure estudioan grabatu duzue *Goldea*. Aurrekoa, *Beltxarga Beltza* ere bertan grabatu zenuten. Nabari dira hobekuntzak, bigarrenetik hirugarrenera.**

**I. Osinaga:** Hobekuntza, literalki, dirua da: erosi ditut mikro gehiago eta material hobea daukagu (barre egiten du). Diskoa ulertzeko moduan egon da aldaketa, esango nuke. Aurrekoan nahia- go genuen “naturala” izatea, nahasketa handirik egin gabe, eta honakoa justu kontrakoa izan da, produkzioari toki handiagoa eman diogu. Hor egon da aldaketa, ordu asko sartu ditugula...

**A. Aranguren:** Sartu dituzula...

**I. Osinaga:** Bai, bereziki (barre egiten du). Uste dut oraingo honetan egon dela “bilaketa” bat: “Honaino iritsi nahi dugu”. Aurrekoa zen “hau da duguna”.

**Autoekoizpenak emango dizue aukera hori, mila eta bat buelta emateko.**

**I. Osinaga:** Lehen aipatu ditugun gauze- kin lotua dago autoekoizpenarena. Argi erabakita daukagu guk nahi dugula egin dena, baita diskoa grabatzeaz aparte kontzertuak eramatea ere, kontratazioa egin eta fakturak kudeatu. Ahal dugulako egin dugu, ikasi dugulako, eta guk egin nahi dugulako. Horrela funtzionatzeak ematen ditugu askatasuna, inork ez baitigu esan diskoa noiz kaleratu. Aldi berean ere presioa badaukagu, jakina.

**Zer nolako ibilbidea izaten ari da diskoa? Ze iritzi heldu zaizkizue?**

**I. Osinaga:** Orokorrean ona, oso ona. Niri esan didatena da ez dagoela “tema- zo zehatzik” edo, nahiko antzekoak dire- la kantu guztiak. Nik uste dut pertsona horrek esan nahi duela ez dagoela abes- tirik egunero irratian jarri eta erreko dutena.

**A. Aranguren:** Bagenuen beldurra, au- rreko diskoa bastante ondo joan zenez, jendeak apur bat bagintuela mitifika- tuta-edo, eta beraz, ateratzen genuela ateratzen genuela, jendeari gustatuko zitzaiola. Orduan, jende batek esan digu “sekulako diskoa” egin dugula, baina zaila da jakiten zein punturaino hartu duen lana independenteki eta balorazio horretara iritsi den, edo hori pentsatu duela gu garelako eta listo.

Kritika bat gustatu zait dezente, Xalba Ramirezek ARGIAN eginikoa. Berak dio ez dakiela gustatu ote zaion disko hau aurrekoa bezainbeste. Mintzo da jauzi bati buruz eta ez dakiela jauzi hori heldu ote den gustatuko litzaiokeen lekura.

**I. Osinaga:** “Kantu onenak etortzeko daude”, esan zuen aurreko diskoaren kritikan. Eta oraingo honetan berriz esa- ten du (barre egiten du). Hori da polite- na, bidea dugula oraindik egiteko. ●

Udakoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.





LIBURUA

# Segi irakurtzen, *Soniexka!*



DMITRY ROZHKOVA

**SONIEXKA**  
**LUDMILA ULITSKAIA**  
 PASAZAITE, 2022

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**S***oniexka* Ludmila Ulitskaia autoreak 1992an errusieraz idatzi eta 2021an Josu Zabaletak itzuli zuen nobela motza da. Pasazaite argialetxeak ateak itxi aurretik euskal irakurleari egindako ekarpena, besteak beste.

Izenburuak, *Soniexka*-k, liburuko protagonistari egiten dio erreferentzia. Hain zuzen, *Soniexka*ren bizitzaren deskribapena egiten baitu honek; protagonista haurra zenean hasten da liburua, irakurtzea izugarri gustatzen zitzaion garaian, muturra beti liburu artean sartuta zue-neko garaian hain zuzen ere. Honelako esaldiak irakur ditzakegu hasieran: "Soniexkaren irakurketak, erotasun modu arin bat bilakaturik, lotan ere ez zuen uzten. Ametsak ere irakurri egiten zituela zirudien" (12. orr). Azpimarragarria dela uste dut, izan ere, liburuzain lanetan ari dela ezagutzen duen Robert Vik-

torovitxekin ezkondu ostean kuriositate eta irakurzaletasun zantzu guztiak galduko baititu. Eta beraien alaba Taniaren jaiotzak areagotu egingo baitu *Soniexka*-rengandik jendarteak, bere senarrak eta berak ere espero duen emakume rola: "(...) osorik eraman zuela Soniak hainbeste maite zuen liburuen mundu hura, eta miserian, txirotasunean eta txandantxandan gaixotzen ziren Tania eta Robert Viktorovitxi buruzko eguneroko kezka-zama imajinatu ere ezinak utzi zizkiola haren ordez" (25. orr).

Pertsonaien nondik- norakoen bitartez garaiko Errusian zegoen giro grisa, txirotasuna eta gerraren presentzia irakurriko ditugu. Horrez gain, Sobietar Batasunak emakumeentzako patriarkatuak gordetzen zuen patua agerian uzten du: bakardadea, familia osoaren zaintza lanen zama eta edozein norta-

sun zantzuren itzaltzea. Hau azpimarratzeko autoreak senarra izendatzen duen aldiro (ez du gutxitan egiten) izen- abizenak erabiltzen ditu. Autoritate, presentzia eta nortasundun izakia dela ahaztu ez dezagun. *Soniexka*, ordea, Sonia izenaren txikigarria da.

Yasiaren iritsierak (Tania alabaren adineko umezurtzarenak, alegia) aldatu egingo du nobelaren norabidea, intriga puntu bat emanaz bukaerari. Eta familia horren patua aldatuz betiko, zeina ez dizuedan kontatuko spoilerrik ez egite aldera. Baina *Soniexka* irakurketa berreskuratzen duela aurreratuko dizuet.

Bere motzean zehatza eta intentsoa da liburua. Deskribapen gogoangarriak egiten ditu, metafora, konparaketen eta zerrenda luzeen bitartez sentsazio bereziak pizteko gai dena. ●



MUSIKA

# Post-asunaren ziztada



## ZULOTIK LEPORA

BONBERENEA EKINTZAK, 2023

IKER BARANDIARAN

**T**aldearen sorrerak kutxatan harripatu gintuen; batzuk beldurrak ezin menderatuta, fundamentuzko kontzerturik egin ez eta ondorioz ezin proposamen berriak zulotik atera. Baina atara(ko) dira, jakina, eta haien hegaldia-ekin topo eginez gero ez dago zirkinik gabe utziko duen inor, edo ez luke hala-korik egon beharko. Izan ere, irmoak dira erabat, aberats eta jostariak instrumentuekin eta giroak sortzen ere maisuak. Ez, ez dira belarri guztietarako goxoak izango, baina nik behintzat sorpresa galanta hartu dut, sorpresa ederra.

Nortzuk dira horren atzean daudenak? Zakur zaharrak: Txus (Same Old, Libe, Losado, Eh!), Ibon (Tutan Come On), Gor-ka (Kashbad, Trumbo) eta Txusta (Iont).

Eta non ezkutatu dira orain artean? 2020an kaleratu zuten estreinako lana, baina ditzosozko pandemiak oztopatu zuen haien hegaldia; eta orain disko berriarekin datoz, motozerraren pare, gauzak argi, oso gogor eta detaileak zailduta baina zainduta. Hau ere Karlos Osinaga 'Txap'-ekin grabatuta eta Voodoo Muzak eskolako saxoek gatzoz-pinduta.

Post-punk eta post-hardcore abizenek lanbrotu egiten gaituzte askotan, hain handiak eta hedatuak baitira aterki horien pean hazten diren taldeak: badira pausatuagoak, ilunagoak, poperoagoak, siniestroagoak, metalaren espaloia higitzen dutenak... Hesitu ezin den esparru erraldoi horretan igeri egiten du Gas-

teizko laukoteak, baina hurbilago dago agian Touch&Go-ri arima eman zioten taldeetatik, amorrutik eta soinutik.

*Ez dago inor-ek* luxuzko introa dauka eutsitako intentsitateaz hasieran; ondoren, erritmo jolas oso aberatsez, abiadura eta indarra kiribiltzen dute oldarkor. *Zulotik* da ia takikardikoa, erritmo apurketa funky-jazz destroyerrarekin Big Black gogoan amilduta. *Aterako dira* da are pisutsuagoa, hotzagoa, industrial girora inguratuta. *Hegaldia* gitarrero eta rockeroena, baina hala ere ilun eta marzianoa; a *ze groove-a* daukan! *Ezin menderatu-k* uztartzen ditu erritmo tribal, ia martzialak eta psikodelia kutsua. Eta, azkenik, *Kutxatan* da azken deiarar eta arnasa. ●





# Oriaren ertzetik

AMETS ARANGUREN  IÑIGO ROYO

Nahi dugu iragana kontatu eta etorkizuna ospatu” aipatzen du Juan-txo Zeberio musikari tolosarrak pasa den igandean Ataria-n eginiko elkar-ritzketan. Tolosako Futbol Klubak ehun urte egin ditu aurten eta, harekin batera, baita Berazubi estadioak ere. Horren karira antolatu zuten San Joan egunaren biharamunean kontzertua Oria ibaian. Ez ertzean edo gertu, baizik eta ibaiaren barnean, lehen aldiz. Ikusgarria ez zen bakarrik entzuten zena izan.

Tolosakoak gehienak, hamabost bat musikari hartu zituen ez-ohiko oholtzak: Mirua taldeko kideak, Verde Prato, Tenpora taldea, hari laukote bat eta haize hirukotea. Hodeiertz abesbatza Zerkausiarren goiko partetik aritu zen kantuan. Antton Telleria ibili zen emanaldiaren gidari, txalupa batean, oholtzaren inguruan bueltaka, Tolosa Futbol Klubarekin lotura duten zenbait kirolarirekin batera.

Errepertorioa interesgarria izanen zela aurreratua zuen Zeberio goizean, baina, egia esan, bete-betea asmatu zutela esanen nuke. Berandu eta galduta gindoazela, *Garai galduak* kantatzen ari zen Verde Pratoren ahotsari segika heldu ginen Oriaren ertzerara. (Oholtzarena gutxi ez eta argiak ere... wow). Kantu propio batzuk izan ziren, aipatu berri Verde Pratorena, Tenporaren *Berriro asma nazazu* edo Miruaren *Goiz hiltzen dira ametsak* single berria kasu. Itoizen eta Laboaren bertsio bana ere izan zen tartean, eta leku zabala izan dute ere Tolosako bertako zenbait kantuzahar-rragoek. Gustatu zait bertakoari aitortza nabarmena egin izana. Tolosa Futbol Klubaren ereserkia bertsio diferentetan jo dute, inauteri ezagunetako doinu batetik Miruako hirukoteak sorturiko *Txin Txin* edo Iraolaneko zuloari eginiko *Iraolanekoa*, udako solstizioarekin batera urtero kantatu ohi dutena. Bakoitza

## URDIÑAK 100 URTEZ

### TOLOSA CF KLUBAREN ETA BERAZUBI ESTADIOAREN MENDEURRENA

Tolosan, Oria ibaiaren gainean, ekainaren 25ean.

bere aldetik entzutea ederra izan da eta musikari denak elkarrekin aritu direnetan hartu dute dimentsio handiagoa doinuek, baina kantuari ibai ertzetako barandilletako tolosarrak gehitu zaizkiolarik hartu du emanaldiak indarririk handiena.



“Nik ere hau nahi dut nire hirian” pentsatu dut eta hasi naiz imajinatzen Labrit frontoiak 2052an izanen duen mendeurrenean. Ez dut uste Argan horrelakorik montatzean pentsatzen ibiliko direnik, baina jakinda (duela urte batzuk arte behintzat) pilotan aritzen ziren haurren arteko txapelketak “txitxirioaren txapelketa” zuela izena eta irabazleak bere pisua eramaten du garbantzutuan, okurririko zaie zerbait originala.

“Edertasun guztien leku izan nahi duzunez gero, hala izan zaitezten” kantatzen dio Benito Lertxundik Oria ibaiari. Beti ez dakit, baina iluntzeko edertasun dena haren urek bildu zuten igandean. ●



# Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA PASAIAKO DANTZA FESTIBALEKO KIDEEK ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.




# Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

# 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Musika tresna.
- Erlijosoen soineko.
- Lodi.
- Ote eme.
- Lur azpiko pasabide.



1	6		2		9	8		
	9	5	8	3	7		6	
				6		3		
8	2			6				5
9				8	5	6	1	2
5	7		9		4			
	4	9			1	5	7	8
7	5	8	3			1		6
		2			8	3		9

ERRAZA

			6		9		5	
		7		4		6		
				3		2	8	
		3		2	9			
9	5			6		4	2	
	2		7		6	1	4	
		6	4				3	
1	4			6				7

ZAILA

## EBAZPENAK

6	1	2	5	7	8	3	4	9
7	5	8	3	9	4	1	2	6
3	4	9	6	2	1	5	7	8
5	7	6	9	1	2	4	8	3
9	3	4	7	8	5	6	1	2
8	2	1	4	6	3	7	9	5
2	8	7	1	5	6	9	3	4
4	9	5	8	3	7	2	6	1
1	6	3	2	4	9	8	5	7

ERRAZA

1	4	8	2	6	3	5	9	7
5	7	6	4	9	1	2	8	3
3	2	9	5	7	8	6	1	4
9	5	1	3	8	6	7	4	2
4	8	3	7	2	9	1	5	6
7	6	2	1	4	5	8	3	9
6	1	5	9	3	7	4	2	8
2	9	7	8	5	4	3	6	1
8	3	4	6	1	2	9	7	5

ZAILA

**PUZLEA:** "PASAIAKO KONPANIA IZANIK, JAIALDIA EGIN AURRETIK BAGENUEN HARRERMANA UDALAREKIN, ETA DANTZAREKIN ZERIKUSIA ZUEN ZERBAT EGITEA PLANTATU ZIGUTEN."  
**5XS:** 1. FAGOTU, 2. ARITU, 3. GIZEN, 4. OTEME, 5. TUNEL.  
**HIZKI BERAK:** 1. IRUDIPEN, 2. ZIURTATU, 3. ZURIUENA, 4. PATRUILA, 5. GERTURIK, 6. ALOKARU

# Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				D	I	P	E	N
2	Z				T	A	T	U
3	Z	U				N	E	A
4	P	A	T				L	A
5	G	E	R	T				K
6	A	L	O	K	A			



# Albina Stardust

'DRAG'-A



## “DENOK EGITEN DUGU DRAG-A”

“Noiz plazaratu nintzen lehenbizikoak? Jaio nintzenean. Oso argi gogoratzen dut sei urterekin ahizparen gona eta amaren takoiak hartzen nituela, eta sofa atzetik *show*-ak egiten nizkiola familiari. Munduak ez ninduela ulertzen pentsatzen nuen, horregatik hartu nuen Stardust ezizena –estralurtar bat da–”.

“*Drag*-a esperimentazioa da azkenean, eta hori zerbait naturala da. Denok jolastu izan gara makillajearekin, edo *show*-ak egiten, marrazten, futbolari izaten... Dena da genero *performance*-a: ilea luze uztea, moztea, begiak margotzea... Horregatik, dena da *drag*-a, moduren batean”.

## “Gure 'drag' artea beste artistena bezala baloratzearekin amesten dut”

Albina Stardust (Burlata, 1997) *drag*-a eta trabestia da jaiotzez: “Trabesti betidanik izan naizela uste dut. Fantasiaren mundua asko gustatu izan zait. Nire kasuan *drag*-a oso pertsonala da; Albina Stardust ez da pertsonaia, baizik eta nire adierazpen artistikoa”. Unibertsitate garaian eman zuen jauzia munduari nor den erakusteko. “*Drag*-ak nahi nuena izaten uzten zidan, gizarteak ez zuelako Eneko epaitzen, Albina baizik. Albinak Eneko asko irakatsi dio, baita alderantziz ere”.

### “Drag artista ez bitarra” zarela diozu Instagram-eko deskribapenean. Lau hitzetan zenbat adierazpide, ezta?

Ez pentsa, batzuetan konfliktoa dut horrekin. Logikoa da gatozen *back-ground* edo historiatic *drag queer* eta *queen* maskulino eta femenino bitarrean erortzea, baina ez genuke jarraitu behar horrela ezberdintzen. *Drag queer* mugimendua sortu zen duela urte batzuk, baina gaur egun *drag* arteaz hitz egiten dugu, ulertzeko errazagoa baita. Bestalde, *drag queen*-en ikusgarritasuna aldarrikatu behar ditugu, maskulinitatea antzezteak baduelako bere aldarrikapena, eta zoragarria da.

**Noiz eta nolatan erabaki zenuen zure proiektu propioa garatzea?**  
Nerabezaroan super-normatiboa

eta heteroa nintzen. Ikastera Gasteizera joan nintzenean hasi nintzen esperimentatzen. Ileordea eta takoiak erosi nituen, eta hor hasi nintzen nire buruari galderak egiten: nola izan ninteke horren lotsatia egunerokoan eta ileordea jantzita hain ahaldunduta sentitu? Emakume transa naiz agian?

Garai hartan ez zen trans identitateez hitz egiten, institutuan ez ziguten ezer azaldu. Ni gustura nengoen nire gorputzarekin, eta *queen* teoriaren barruan ezagutu nituen pertsona ez-bitarrak eta abarrak. Unibertsitatean erabaki nuen *draga* zela nire modua munduari nor nintzen erakusteko. *Draga*-k nahi nuena izaten uzten zidan, gizarteak ez zuelako Eneko epaitzen, Albina baizik. Albinak Eneko asko irakatsi dio, baita alderantziz ere.



"Lentejuelaz egindako ikurriñadun bodia eta takoidun abarka trabestiak sortu ditut: euskal kultura berriku dezakegu".

### **Euskal Herrian eta euskaraz, badago drag-en sarerik?**

Yogurinha Borovak, Divina Komediak eta nik euskaraz egiten dugu. Bilbon ere jaiotzen ari dira, eta gero eta gehiago gara. Beharra badago: euskarak hurbiltasuna eta bertakotzea eragiten ditu.

### **Belaunaldi berriei begira, drag erreferenteak zarete.**

Ezagunagoak izateagatik ez gara erreferenteagoak, guztiak gara erreferenteak.

### **Euskal kultur eszenarentzat hautu iraultzailea kontsidera daiteke**

### **zurea. Helburu hori ere badu?**

Jakina. Lentejuelaz egindako ikurriña body batekin atera naiz nire azken *show*-ean, esaterako. Edota jada ikoniko bihurtu diren alpargata trabestiak sortu ditut, takoidunak. Euskal kultura berriku dezakegu.

Txosna askotatik deitzen gaituzte zerbait berria nahi dutela esanda, baina txosnetan edo ohiko jaietan ez dut nire tokia aurkitu. Rock taldeekin afaltzea eta jotzea ere behar dugu, eta haiekin bat egin. *Drag* artistak, emakumeak zein pertsona ez bitarrak gauza asko sortzen ari dira: Kai

Nakai, Merina Gris edota J Martina, kasurako.

### **Kulturaren plaza aldatu da?**

Aberatsagoak izan gaitzke, askotari-koagoak. Dena den, zorionez, geroz eta ahots eta estilo ugariagoak entzuten ari gara, eta zoragarria da.

### **Kulturak zer falta du askatzailea izateko?**

Artistak ez dira falta; asko gara, eta gehiago bagara, hobeto. Falta dena espazioa da, benetako gogoeta eginda duten espazioak. Antolatzaileek ez ditute LGTBI+ artistak deitze hutsagatik deitu behar, baizik eta hala nahi dutelako egin. Zer da espazio horrek antolatzen duena eta antolatu nahi duena? Hausnarketa hori beharrezkoa da. Ekainean lanez gainezka aritu gara, eta emanaldi gehien-gehienak, hausnarketa handirik egin ez duten lekuetan izan dira.

### **Bazen garaia euskaraz trabestiek ere plazak zein erdiguneak hartzeko. Babesa ala oztoppa, zer sentitu duzu gehiago bide horretan?**

Oro har, babesa. Kezkagarria dena da terf-ak geroz eta indar gehiago ari direla hartzen ("Trans-Exclusionary Radical Feminist" edo "Transak baztertzen dituzten feminista erradikalak" mugimenduak). Hala ere, babesa eta interes handia jasotzen dugu oro har, batez ere Mugimendu Feministaren eskutik.

### **Telebistan ere ibilia zara. Pantailek askotariko identitateak plazaratzen laguntzen dute?**

Zein helbururekin ematen dizkigute espazioak? Positibismoaren betaurrekoak jarrita, geroz eta identitate disidente gehiago ikusten dira telebistan eta medio guztietan.

### **Kontzertu edo egun berezi bat aukeratzekotan, zein?**

Luma Trabesti Fest, duarik gabe. Iaz egin genuen Euskal Herriko lehen trabesti jaialdia eta izugarria izan zen. Niretzat egun historikoa da.

### **Zerekin amesten du Albinak?**

Nire artea baloratzearekin, beste artistenaren maila berean jarrita. Zergatik ez gaude, esaterako, Gaztea sarietara edo jaialdi erraldoi batera izendatuta? Denak ez gara musikariak, baina musika egiten dugu, eta abestu ere bai. Horrik kanpo uzten gaituzte. ●



# Tsipras (agurraren lezioa)

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**A**tzeko atetik eta zarata handirik gabe, Alexis Tsiprasek Syriza alderdiaren lider izateari utzi dio joan den astean. Bai, 2023koa da berria. Greziako notiziak gertutik jarraitzen ez dituen hankabiko arruntarentzat –neroni, adibidez– aspalditxo radarretik kanpo zebilen, baina azkeneko hauteskundeetan jasandako jipoiak erakutsi dio ateranzko bidea.

Badira kolpean erortzen direnak, keinu erradikal eta behin betiko batez, parean agertzen diren indarren aurka ahal bezainbeste lehiatuta, agortuta, kiskalita, gorpu politiko erraustua utziz, baina beharbada mitoren bat ere bai: dena eman zuen sinesten zuen horren alde, eta abar. Tsiprasen kasuak antz handiagoa dauka igelak uretan egosteko metodoarekin.

Badakizue, ez da igela bota behar irakiten dagoen lapikora, salto batez eskapo egingo diolako heriotza seguruari. Igeljaleek eta finantzen aurrean belaunikatutako politikagintza babes-ten dutenek ondo dakitenez, askoz eraginkorragoa da zomorroa ur hotzetan murgiltzea, gero ura eztitzea, epeltzea, progresiboki berotzea. Burbuila kiskalgarriak agertzen direnerako tripaz gora flotatzen egongo da anfibia iheskorra.

Uretakoa bezain lehorrekoa izan da Tsiprasen ibilbidea ere, ez hangoa eta ez hemengoa, eta historiak epai bereziki gaiztoak eduki ohi ditu gordeta anbiguotasun horren aurkako bandera altxatuz agertu ondoren –“austerizidioari ez” esaldian laburbildu liteke Syriza gobernura eraman zuen kanpaina–, dagoenarekin nola edo hala moldatzen bukatzen dutenentzat.

Ezker instituzional europarrak melodia desafinatu bat txistukatuz eta bestaldera begiratu erreakzionatu du agurraren notizia ikustean. Gauzak, ai, oso bestelakoak ziren 2015. urte urrun hartan: bazirudien lehen ministro gre-



ziar gaztea gai izango zela *establishment* europar kapitalista bere tokian jartzeko. Syriza politika alternatiboaren faro bihurtu zen, ez zegoen gauza sexyagorik Europako estatu bat gidatzen, parlamentuen ababorrean esertzen ziren politikarien artean inori ez zitzaizkion trajeak eta alkandora zuriak Tsiprasi bezain ondo gelditzen –geroztik ere ez, bide batez: trajez jantzitako politikari aurrerakoi batek jaunartze batetik ihes egin duela dirudi hamar kasutatik bederatzitan–; eta zer esan haren ondoan agertzen zen Gianis Varoufakis buruz: finantza ministro batek populazioaren libidoa hainbeste animatu zezaketenik pentsatzea ezinezkoa zen krisi greziarra gorenera iritsi zen arte.

Handik gutxira, ordea, *realpolitik*-aren merkealdiak iritsi ziren, Syrizarren gobernuak burua makurtu zuen Troikaren aurrean eta herrialdearen “erreskate-plana” –to eufemismoa– onartu,

erreferendum bidez kontra agertu ziren greziarren borondateari bizkarra emanda. Heroi izan zitekeena traidore bihurtu zen askoren begietan –tartean bere alderdikideak–, eta jeneralean hain iritzi irmoak edukitzen ez ditugunok ere pertsonaia politiko grisen karpeta potoloan sartu genuen. Beste guztiak bezalakoak zen, azken finean.

Diferentzia batekin, Tsiprasek ziklo baten amaiera pertsonifikatzen baitu: Grezia 2015 momentuaren ondoren, ondo ikasita eduki behar genuke Europako estatu baten gidaritza lortuta ere funtsezko gauzak erabakitze aukerak oso murriztak izan daitezkeela.

Bizitzen jarraitu behar hala ere, noski, eta Tourra etxe ondolik pasatzean ikurrina pixka bat astindu, erabakitze-ko eskubidea aldarrikatuz. Greziar manneran, hori bai: Penelopek ehuntzen zuen oihalaren antzeko zerbait dela ahaztu gabe. ●

# inor ez da ilegala

jantziak salgai jarri nahi dituzu?



Euskal Herri osoan zehar sarea antolatzen ari gara

**[komertzial@argia.eus](mailto:komertzial@argia.eus) 679 81 73 54**





*Er da jogurta, Goenaga da*



[www.yogurgoenaga.com](http://www.yogurgoenaga.com)

☎ 943 21 63 27

📞 Whatsapp (+34) 671 10 11 80

✉ [goenaga@yogurgoenaga.com](mailto:goenaga@yogurgoenaga.com)

📍 Pokopandegi Baserria, Igara.  
20018 Donostia.